Galdakaoko Udala

IRATXE ZORROZA ELORRIETA (1. guztira 2)
Kontratazio-Zer. Orokorretako Arduraduna / Resp. Contratación y Serv. Grales.
Sinaduraren data: 31/10/2024
HASH: 7aac4f33c4809a5d077baa20e56db295

Iñigo Hernando Arriandiaga (2. guztira 2)
Alkatea / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 31/10/2024
HASH: 8eb7295a31e93d88f985e7ff43096d51

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

KONTRATU-MOTA: ZERBITZUAK

PROZEDURA: IREKIA (SPKL 156. art.)

ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA: EZ

ERREKURTSO BEREZIA IZAN DEZAKEEN KONTRATUA: Bai

LIZITAZIO ELEKTRONIKOA: Bai

Espediente zk.: 6036/2023

Xedea: GAZTEENTZAKO ARRETA PSIKOLOGIKO ETA AFEKTIBO-SEXUALEKO "*BATERA*" ZERBITZUA

Edukia:

Kontratuaren berariazko klausulak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 103

Galdakaoko Udala

KONTRATUKO BERARIAZKO KLAUSULAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1 KONTRATUAREN XEDEA.

1.1 Definizioa:

- **Kontratu honen helburua da Galdakaoko 12 eta 30 urte bitarteko gazteei aholkularitza psikologikoa eta afektibo-sexuala emateko "BATERA" zerbitzua ematea, Klausula Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera**

Sortetan banatzea: Ez. Justifikazioa memorian: Kontratuaren izaeragatik beragatik; izan ere, unitate funtzional bakarra denez, ezin da zatitu.

1.2 CPV kodea:
85121270-6 Zerbitzu psikiatriko edo psikologikoak.
85312310-5 Orientazio zerbitzuak.

1.3 Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk**:** Ez

1.4 Traktua: Segidakoa: Bai

2 KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK:

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak.

3 KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA

3.1 KONTRATUAREN GASTUAREN GEHIENEKO AURREKONTUA KONTRATUAK IRAUNGO DUEN BITARTEAN (bi urte) hau da:

ARRETA-ZERBITZURAKO aurrekontua (BEZik gabe)		41.572,56 €
BEZa	% 21	8.730,24 €
Aurrekontua guztira (BEZ barne)		**50.302,80 €**

ORDU-POLTSARAKO gehieneko aurrekontua (BEZik gabe)		12.880,00 €(*)
BEZa	% 21	2.704,80 €
Aurrekontua guztira (BEZ barne)		**15.584,80 €**

(*) Ordu-poltsarako 184 ordu zenbatetsi dira urtean.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 103

3.2 AURREKONTUAREN BANAKAPENA:

SPKLren 100. artikuluaren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (kontratazio-organoak kontratuaren arabera konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko mugatzat hartuta), BEZa barne, merkatuko prezioetara egokitu beharko da, eta behar bezala banakatuta egon beharko da. I.1 eranskinean ageri dira kalkulurako kontuan hartu diren kostuak eta gastuak.

3.3 LIZITAZIORAKO OINARRIZKO TASAK:

Lizitazio-tasa hauek dira lizitatzaileen beheranzko eskaintza ekonomikoen zenbatekoak:

- **ARRETA PSIKOLOGIKO ETA AFEKTIBO-SEXUALEKO ZERBITZUA:**

Lizitazio mota (OROHARREKO prezioan)	**20.786,28 €/urte**
% 21eko BEZa	4.365,12 €
Guztira (BEZa barne)	25.151,40 €/urte

- **BANAKAKO ARRETA zerbitzurako ORDU-POLTSAREN UNITATEKO PREZIOA (*):**

Lizitazio mota (prezio unitarioa/ ORDUA)	**35,00 euro/ORDUA**
% 21eko BEZa	7,35 euro
Guztira (BEZa barne)	42,35 euro/ORDUA

(*) Ordu-poltsarako 184 ordu zenbatetsi dira urtean.

Lizitazio-tasa hauek dira lizitatzaileen **beheranzko eskaintza** ekonomikoen zenbatekoak, eta baldintza hauek bete beharko dira:

- Lizitatzaileek sortaka eskaini behar dituzte prezioak, AKPAren **IV.1 eranskineko** ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ereduaren arabera.

- **Proposatutako lizitazio-tasa gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira** baita agiri honetako baldintza orokorretako 14. artikuluan jasotako kasuren bat betetzen dutenak ere.

- Eskaintza anormalki baxuegiak klausula espezifikoen 22.3 atalean azaldutakoaren arabera arautuko dira; halaber, baztertuta gera daitezke, baldin eta murrizketa justifikatzen duen eta aurkeztutako eskaintzaren bideragarritasuna bermatzen duen arrazoi objektiborik ez badago, artikulu honetan ezarritako prozeduraren arabera: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149.4 artikulua.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 103

- Unitateko prezioak zehazten diren puntuetan, ale-kopurua gutxi gorabeherakoa da, eta ez du lotzen kontratistari ordaindu beharreko guztizko prezio erreala. Prezio hori benetan eman diren aleen araberakoa izango da, Galdakaoko Udalaren beharren arabera.

3.4 Aurrekontu-aplikazioa eta urterokoak:

Kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa honako hau da: **23.3345.22704**

Urteko aurrekontuak hauek dira:

	ARRETA-ZERBITZUA	ORDU-POLTSA	Guztira Total
2024	1.047,97 €	0,00 €	1.047,97 €
2025	25.151,40 €	7.792,40 €	32.943,80 €
2026	24.103,43 €	7.792,40 €	31.895,83 €

Urteko kuota hauek kontratuaren hasierako dataren arabera doituko dira.

3.5 Aurretiko izapidetzea:
3.6 Gastua kofinantzatuta dago: Ez

---

4 KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1 Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe) hau da: 108.905,12 euro:

Zerbitzuaren lizitazio-aurrekontua 2 urterako, BEZik gabe.	41.572,56 €
- Luzapena (1 +1 urte) BEZik gabe	41.572,56 €
Ordu-poltsaren aurrekontua 2 urterako, BEZik gabe	12.880,00 €
- Ordu-poltsaren luzapena (1 +1 urte) BEZik gabe	12.880,00
Balio zenbatetsia guztira (BEZik gabe)	**108.905,12 €**

4.2 Kalkulatzeko metodoa:

Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurreko ekitaldian egin zen ezaugarri bereko kontratuaren balio ekonomikoa hartu da erreferentzia gisa, eta egungo beharretara egokitu da. Kostuari dagokionez, lizitazioaren gehieneko aurrekontua kalkulatzeko egin den banakapena hartu da kontuan, merkatuko prezioekin bat datozen prezioekin. Halaber, urtebeteko bi luzapen aurreikusi dira, zeinak 6. atalean azaldu diren, eta ez da aldaketarik aurreikusi.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 103

5 PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

5.1 Prezioa zehazteko sistema: **Oroharreko** prezio-sistemaren arabera finkatuko da arreta-zerbitzuaren prezioa.

- Hala ere, ordu-poltsarako **prezio unitarioak** zehaztu dira.

Unitateko prezioak zehazten diren puntuetan, unitate-kopurua gutxi gorabeherakoa da, eta ez du lotzen kontratistari ordaindu beharreko guztizko prezio erreala. Prezio hori Galdakaoko Udalaren beharren araberakoa izango da.

Banakako arretarako Orduen Poltsan, prezioa denbora-unitateen arabera zehazten denean, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala ematean kontratuan aurreikusitako orduetatik (184 urtean) benetan emandako ordu-kopuruan bakarrik gertatzen diren aldaketak, baldin eta ez badute gastua kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiago handitzen, SPKLren 309.1 artikuluaren arabera.

5.2 PREZIOA ORDAINTZEKO MODUA: Adjudikazio-prezioa zatikako ordainketen bidez ordainduko da, hileko aldizkakotasunarekin, zereginak behar bezala egin direla egiaztatu eta baliozkotu ondoren.

5.3 Prestaketa-eragiketak daude: Ez

5.4 Prezioak berrikustea: Ez

5.5 Epe- edo errendimendu-helburu jakin batzuk betetzearen edo ez betetzearen arabera prezioa aldatzeko klausula: Ez

---

6 KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EXEKUZIO-EPEA. LUZAPENA

6.1 Guztizko iraupena edo guztizko exekuzio-epea edo muga-eguna: Kontratuaren gehieneko iraupena **BI (2) urtekoa** izango da.

6.2 Hasteko data: kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera (edo kontratua formalizatzeko agirian bertan adierazten den egunetik aurrera).

6.3 Epe partzialak: Ez

6.4 Luzapena eta luzapenaren iraupena: **Kontratua urtero luzatu ahalko da, gehienez ere 2 urtera arte, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du 4 urte baino gehiago iraun.**

---

7 PUBLIZITATE-ZERBITZUAK: Ez dago horrelakorik.

---

8 BERMEAK.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 103

8.1 Behin-behineko bermea: Ez

8.2 Behin betiko bermea: Bai, hiru zenbateko hauen batura eskatzen da:

- OROHARREKO PREZIOA: eskainitako **azken prezioaren % 5** (BEZik gabe), eta
- ORDU-POLTSA: dagokion **lizitazioaren oinarrizko aurrekontuen % 5** (BEZik gabe), SPKLren 107.3 artikuluari jarraituz.

8.3 Berme osagarria: Ez

8.4 Zilegi da bermeak prezioaren atxikipenaren bidez eratzea: Ez dagokio

8.5 Zati bat jasotzen bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahalko du kontratistak: Ez

---

9 ASEGURUAK.

Enpresa lizitatzaileek nahitaezko aseguruak eduki beharko dituzte.

---

10 SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA: Ez dago horrelakorik.

---

11 EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK.

11.1 Gizarte-izaerakoak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1 Baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, lege honen 7.artikuluan xedatutakoa betez: 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzekoa.

11.1.2. Beste batzuk: **Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babestea**

Kontratuaren xede den zerbitzua gauzatzen hasteko, baldintza hauek betetzea eskatu ahalko da:

- Esleipendunak **berariazko protokolo bat izango du haurrak eta nerabeak ondo tratatzeko,** lege honek ezartzen duen moduan: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik begiratzeko babes integralarena.
- Kontratuari atxikitako langileek **trebakuntza izango dute ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak ezarritako gaietan (8 ordu gutxienez)**
- Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak (26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak aldatua) ezartzen duenez, **Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak** aurkeztu behar dira adingabeekin ohiko harremanetan lan egiten duen profesional eta boluntario bakoitzeko.

11.1.3. Berdintasunaren arloan:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 103

Enpresan **hizkera inklusiboa eta berdintasunezkoa erabiltzeko neurri espezifikoak onartzea eta zabaltzea** kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian hizkera ez-sexista erabil dezaten, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak bazter ditzaten eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, genero-erantzunkidetasunaren eta identitate-balioen irudia susta dezaten.

11.2 Ingurumen-arloan:

Sortutako dokumentazioa, hala nola ebaluazio-txostenak, honako ezaugarri hauekin inprimatu beharko dira:
- Paperak ziurtatutako baso-ustiapen jasangarrietatik (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo zuntz birziklatuetatik datozen zur-zuntzen % 30 izan behar du, gutxienez.
- Oinarrizko klororik gabeko papera (Elementary chlorine free, ECF)
- Bi aldeetan inprimatuko da eta, ahal dela, monokromoan (zuria/beltza).

Hori egiaztatzeko, esleipendunak egiaztagiri bat aurkeztu beharko du.

11.3 Etikoak: Ez

11.4 Hizkuntzari dagokionez:

11.4.1 Agiri honetako baldintza orokorren 28.1 klausulan jasotakoak.

Kontratuaren xedeak herritarrei zerbitzuak ematea barne hartzen duenez, enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen, edo kontratua gauzatzean harremanetan egon behar diren pertsonen arteko komunikazioan erabili beharreko hizkuntza erabiltzaileak edo hirugarrenak kasu bakoitzean aukeratzen duena izango da, ahoz zein idatziz. Nolanahi ere, beti errespetatuko da interesdunen hizkuntza-hautua, ahoz zein idatziz.

Kontratu honen xedea gauzatzeko jasotzen diren hizkuntza-eskakizunak ere SPKLren funtsezko betebeharra dira.

Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntza-eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.

11.5 Beste batzuk:

11.5.1. Azpikontratazioari dagokionez: Agiri honen baldintza orokorren 28.3 klausulan jasotakoak, arau hauen arabera: 3/2016 Legearen 7. artikulua eta SPKLren 215.4 eta 217 artikuluak

11.5.1 **Datuen babesari dagokionez:** Agiri honen baldintza orokorren 28.4 klausulan jasotakoak, SPKLren 202. artikuluaren 1. atalaren arabera.

Egikaritzeko Galdakaoko Udalak kontratistari datuak lagatzea eskatzen duten kontratuetan, exekuzio-baldintza berezia izango da arau hauetan aurreikusitakoa betetzea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 103

11.6.- Berrikuntzaren arloan: Ez

11.7.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea*:* baldintza orokorren 28.3 klausulan ezarritakoak.

OHARRA: Kontuan izan behar da exekuzio-baldintza bereziak azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkiela.

---

12 OINARRIZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK:

12.1 Oinarrizko kontratu-betebeharrak:

12.1.1 Kontratuaren berariazko klausulen 11. klausulan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

12.1.2 Kontratuaren berariazko klausulen 21.6 klausulan ezarritakoaren arabera, kontratua egikaritzeko eskatzen diren giza baliabideak kontratuari esleitzea, bai eta eskaintzan konprometitutako baliabideak esleitzea.

12.1.3 Kontratistak berak prestazioaren zati jakin batzuk edo lan jakin batzuk egin behar ditu, kontratuaren berariazko klausulen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4 Kontratuaren berariazko klausulen 14.1 klausulan adierazitako azpikontratazioa egiteko baldintzak, azpikontratistaren gaitasuna baldintza orokorren 34.1 klausularen arabera egiaztatzea, eta SPKLren 215.2 artikuluaren c) letran aipatutako larrialdi- edo urgentzia-egoera eragiten duten inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5 Beste batzuk:
- PTAn funtsezkotzat jotzen diren exekuzio-betebeharrak, hala badagokio.
- Eskaintzan jasotako baldintzak betetzea.

12.1.6.- Datu pertsonalak babesteari dagokionez: bai
Datu pertsonalak Galdakaoko Udalak tratatuz gero, ezinbestekoak dira SPKLren 122.2 artikuluko laugarren paragrafoko a) letratik e)-ra jasotako betebeharrak.

Kontratuko funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea arau-hauste larria da SPKLren 71.2 c) artikuluaren arabera.

12.2 Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak.

12.2.1 Ingurumen-arloko betebeharrak: Ez

12.2.2 Gizarte- edo lan-arloko betebeharrak: Bai.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 103

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera, langileen soldata-baldintzak betetzea, SPKLren 122.2. artikuluaren arabera.

12.2.3 Beste batzuk: Administrazio-klausulen agiri honetako klausula orokorren 27. klausulan aurreikusitakoak.

---

13 ZEHAPENAK.

13.1 Baldintza orokorren 31.1 klausulan ezarritako zigorrez gain, ez da besterik ezartzen.

---

14 AZPIKONTRATATZEA.

14.1 Prestazio partzialak azpikontratatzeko baldintzak:

- Badira azpikontrataziorik onartzen EZ duten zeregin kritikoak.
  - ☒ Ez
  - ☐ Bai. Zeintzuk:

14.2 Eragile ekonomikoek informazio eta/edo dokumentazio hau emateko betebeharra dute:

Lizitatzaileek, esleipena egin aurretik, honako hauek adierazi beharko dituzte A gutun-azalean, administrazio-agiri honetako berariazko klausulen 24.1 atalean xedatutakoari jarraiki:

a) Administrazio-agiri honen baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten diren datuak, EKABaren II. zatiko D atala betez.

---

15 EXEKUZIOA, JASOTZEA ETA BERME-EPEA EGIAZTATZEA.

15.1 Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko modua: Kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena.

15.2 Jasotzeko epea: Hilabete BAT (1).

15.3 Jasotze partzialak daude: Ez.

15.4 Berme-epea: Kontratatzen diren zerbitzuek prestazioak amaitzen dituztenez kontratuaren exekuzio-epea amaitzen denean, ez da beharrezkotzat jotzen berme-eperik ezartzea.

---

16 KONTRATUA ALDATZEA.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 103

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik egin ahalko dira aurreikusi gabeko aldaketak, SPKLren 205. artikuluan ezarritako mugen arabera.

---

17 BERARIAZKO SUNTSIARAZPEN-KAUSAK.

Baldintza orokorren 31.1 klausulan ezarritakoez gain, beste suntsiarazpen-kausa osagarrik ezartzen dira. Bai, kontratua suntsiaraziko da kasu honetan:

- Adjudikaziodunak ez betetzea administrazio-klausulen agiri honen 12.1 berariazko klausulan aurreikusitako kontratuko funtsezko betebeharrak.

---

18 KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

18.1 **Baldintza orokorren 25.2 klausulak ezarritako lan-programa aurkezteko obligazioa du kontratistak**: Ez, lizitatzaileak eskaintzan sartu beharko duen Memoria Teknikoan sartuko den informazioari kalterik egin gabe.

18.2 **Datu pertsonalak tratatzeko neurri bereziak ezarri dira**: Ez; izan ere, espedientea sustatu duen arloak dioenez, kontratu hau gauzatzeak ez dakar berekin Galdakaoko Udalak kontratistari datu pertsonalak lagatzea.

18.3 **Prestazioaren zati batzuk edo lan jakin batzuk kontratistak berak egitea eskatzen da**, **SPKLren 75.4** artikuluan xedatutakoaren arabera: Ez

18.4 **Beste batzuk:** Ez

II.- ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

---

19 ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK.

19.1 **Botere adjudikatzailea**: Galdakaoko Udala.

19.2 Organoen identifikazioa.

19.2.1 Kontratazio-organoa: Alkate-Udalburua

19.2.2 Organo hartzailea:

Galdakaoko Udala
Posta-helbidea: Kurtzeko plaza, 1. PK: 48960. Galdakao (Bizkaia).
DIR3 kodea: L01480366

19.2.3 Kontratuaren arduraduna: Aiora Azagirre (animatzaile soziokulturala)

19.2.4 19.2.4Kontabilitate publikoaren arloko organo eskumenduna: Udal kontu-hartzailea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 103

19.2.5 Kontratazio Zentrala. Kontratua esleitzen duen organoak beste erakunde batentzat jarduten du: Ez

19.2.6 Kontratazio-mahaiaren osaera:
2023/07/10eko 1524/2023 Alkatetzaren Dekretuan xedatutakoaren arabera (2023/07/13ko BAO, 135. zk.). Galdakaoko Udalaren webgunean kontratatzailearen profilean kontsultatu ahalko da: https://www.galdakao.eus/perfil-contratante. Gainera, aipatutako dekretuan onartutakoaren arabera, kontratazio-mahaiko kide izango da, bokal gisa, kontratua sustatu duen arloko teknikari bat. Horretarako, honako hauek izendatzen dira:

- Kidea: Titularra: Aiora Azagirre (animatzaile soziokulturala) Ordezkoa: Juan Miguel Ereño Ealo (Kultura, Gazteria eta Kiroleko arduraduna)

19.2.7 Adituen batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez

19.3 Esleipen-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea: Kontratazio-departamentua

19.4 Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- Kultura eta Gazteria arloa
- Helbide elektronikoa: contratacion@galdakao.net
- Telefono-zenbakia: 944010527

19.5 Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- Kontratazio-departamentua
- Helbide elektronikoa: contratacion@galdakao.net
- Telefono-zenbakia: 944010527

19.6 Erregistroak:

19.6.1 **ESKAINTZAK AURKEZTEKO ERREGISTROA**: **Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoa.** Enpresa eskaintzaileek **eskaintza ELEKTRONIKOAK** aurkeztuko dituzte Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren lizitazio elektronikorako aplikazioaren bidez, helbide honen bidez: www.contratacion.euskadi.eus, (ikusi baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

- **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua (Eusko Jaurlaritza)**:

Tel. 945016298.

Helbide elektronikoa: lagunzakpe@euskadi.eus

19.6.2 **Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa:** Galdakaoko Udalaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra, udal webgunean dagoena.

19.7.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 103

- Galdakaoko Udalaren kontratatzailearen profila: www.galdakao.eus
- Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma: www.contratacion.euskadi.eus
- EBAOn argitaratzea: Ez dagokio.

---

20 IZAPIDETZEA ETA ESLEITZEKO PROZEDURA.

20.1 Erregulazio harmonizatuko kontratua: Ez, SPKLren 22.1.b) artikuluaren arabera.

20.2 Izapidetzea: Arrunta

20.3 Prozedura: Irekia

20.4 Sortetan banatzeari buruzko informazioa: Ez dagokio

20.5 Izapidetzeko bitartekoak: ELEKTRONIKOAK, administrazio-agiri honetako baldintza orokorren 12. atalean ezarritakoaren arabera

LIZITAZIO ELEKTRONIKOA izeneko aplikazioaren bidez, hemen: EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PLATAFORMA.

20.6. Enkante elektronikoa: Ez

20.7. Gizarteratzeko enpleguko zentro bereziei eta gizarteratze enpresei gordetako kontratua edo babestutako enplegu programen esparruan dagoena: Ez.

20.6 Kontratua erakunde jakin batzuentzat erreserbatuta dago, izaera sozial, kultural edo sanitarioa duen zerbitzu-kontratua delako, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz: Ez

---

21 KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BITARTEKOAK ATXIKITZEA.

21.1 Gutxieneko kaudimen-baldintzak izateko betebeharra: Bai, 21.2 berariazko klausularen arabera.

21.2 KAUDIMENA: operadore ekonomikoek kaudimen hau izan behar dute:

21.2.1 **EKONOMIA- ETA FINANTZA- KAUDIMENA.**

Betekizunak: Urteko negozio-bolumena

- Lizitatzailearen urteko negozio-bolumenak, azken hiru urteetako negozio-bolumen handienari dagokionak, **kontratuaren urteko batez besteko balioa halako bat eta erdi edo handiagoa izan beharko du** BEZik gabe. Zenbateko hori, gutxienez, hau izango da: **40.839,420,00 €**

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 103

- Hauen bidez **egiaztatuko da**:

  a) Urteko kontuak, onartuta eta Merkataritza Erregistroan gordailututa daudenak, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago.
  b) Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean gordailututako kontuak.
  c) Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuak badira, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuak eta urteko kontuak.
  d) AKBPren V.5 eranskina betez, kontuak inongo erregistro ofizialetan gordailutu edo legeztatu ez dituzten lizitatzaileen kasuan.

Oharra: urteko negozio bolumena honako hau da: merkataritza legerian ezarritako urteko kontuen araubide ereduetako galera eta irabaziei buruzko kontuan agertzen den negozio zifraren kopuru garbia.

21.2.2 **KAUDIMENA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA**.

21.2.2.1 **Betekizunak: Aurrez antzeko zerbitzuak eman izana**

- Lizitatzaileek azken hiru urteetan kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzeko zerbitzuak eman behar izan dituzte, eta urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, kontratu honen batez besteko urteko kuotaren (BEZik gabe) ehuneko 70ekoa edo handiagoa izan behar da. Zenbateko hori hau da: **19.058,40 €**

  Izaera bereko edo antzeko zerbitzutzat hartuko dira honako hauek: haur eta nerabeei arreta eta orientazio psikologikoa emateko proiektuak.

- **Honela egiaztatuko da**: azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuz. Bertan, zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatua adieraziko dira. Beharrezkoa izango da:

  a) Hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan bada, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez edo modu frogagarrian egiaztatzen duten bestelako agirien bidez justifikatu beharko da egikaritzea.
  b) Hartzailea subjektu pribatua izan bada, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hori izan ezean, enpresa lizitatzailearen adierazpen baten bidez justifikatu behar da egikaritzea. Deklarazio hori aurkeztuz gero, administrazio honek haren baliozkotasuna egiaztatu ahalko du.

21.2.2.2**. Kaudimen tekniko/profesionalaren baldintza enpresa sortu berrientzat:**
Oharra: enpresa sortu berritzat hartzen da BOST (5) urtetik beherako antzinatasuna duena.

Gutxieneko baldintza: Enpresariak eta enpresako zuzendariek honako titulazio hau izan behar dute gutxienez: **Goi-mailako unibertsitate-prestakuntza (unibertsitateko lizentzia edo gradua)**

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 103

Eta **kontratua exekutatuko duen pertsonak** hau izan behar du beti:

- Psikologian lizentziaduna edo unibertsitate-gradua, eta 2 urteko esperientzia espezifikoa duena aholkularitza eta arreta psikologikorako zerbitzuetan.
- Egoitza lurralde nazionalean duten Psikologiako Elkargo Profesionalen batean elkargokide izatea.
- Sexologiari buruzko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Feminismoaren inguruko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Euskarazko C1 ziurtagiria edo baliokidea (Europako Esparru Bateratuaren araberako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien arteko Baliokidetzaren arabera).

Honela egiaztatuko da:

- Enpresaburuak, enpresako zuzendariak edo/eta exekuzioaren arduradunak izan behar duen maila baxueneko titulazio ofiziala edo titulazioaren kopia konpultsatua.
- CV osoa; bertan adierazi behar dira titulazioa, gaitasunak eta esperientzia-urteak.
  - Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatearen ziurtagiria.
  - Eskatutako prestakuntzan parte hartu izanaren ziurtagiria.
  - C1 euskara-mailaren ziurtagiria
- Hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskumena duen organoak ikus-onetsitako edo egiaztatutako agirien bitartez **frogatuko da esperientzia**; jasotzailea subjektu pribatua bada, horrek emandako enpresa-ziurtagiriaren bidez, edo, halakorik ez badago, enpresaburuaren deklarazioaren bidez, prestazioa eman dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera (lan-bizitzaren ziurtagiria, lan-kontratua...).

Baldintza orokorren 11.4 klausularen bigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu kaudimen-betekizun horiek, atal honetan adierazitako dokumentuen bidez.

21.3 Kaudimena sailkapenaren bidez egiaztatzea *[ordezkoa]*: Ez dagokio

21.4 Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: Ez da eskatzen

21.5. Pertsona juridikoek prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-prestakuntza eman behar dituzte: Bai, baina ezarritako formularen araberako balorazio-irizpideen "C" gutun-azalean BAKARRIK (ikusi 22.2.2 berariazko klausula)

21.6. BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEA: Bai, eskatzen da

Baliabideak nahitaez atxiki behar dira, eta enpresa lizitatzaileek **II.2 ERANSKINA** "**Baliabideak atxikitzeko konpromisoa"** bete behar dute.

Enpresa esleipendunak zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren giza baliabideak izan beharko ditu, eta bere gain hartu beharko ditu langile horien mendetasun-harremanetik eratorritako kostu guztiak. Langile horiek ez dute, inola ere, administrazio- edo lan-loturarik

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 103

izango Galdakaoko Udalarekin, eta Udala salbuetsita geratuko da enpresaren eta bere langileen arteko harremanek eragin ditzaketen erantzukizun guztietatik.

Zerbitzurako proposatzen den pertsona-kopurua alde batera utzi gabe, entitate esleipendunak giza talde hau izendatu behar du **gutxienez** lana egiteko:

Atxikipen-ezaugarriak betetzen dituzten pertsona 1 atxiki beharko dituzte gutxienez ezaugarri hauekin:

- Psikologian lizentziaduna edo unibertsitate-gradua, eta 2 urteko esperientzia espezifikoa duena aholkularitza eta arreta psikologikorako zerbitzuetan.
- Egoitza lurralde nazionalean duten Psikologiako Elkargo Profesionalen batean elkargokide izatea.
- Sexologiari buruzko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Feminismoaren inguruko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Euskarazko C1 ziurtagiria edo baliokidea (Europako Esparru Bateratuaren araberako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien arteko Baliokidetzaren arabera).

Azaldutako atxikipena funtsezko betebeharra da; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo daiteke.

Hori egiaztatzeko hau aurkeztuko da:

- CV osoa; bertan adierazi behar dira titulazioa, gaitasunak eta esperientzia-urteak.
- Titulazio ofiziala edo horren kopia.
- Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatearen ziurtagiria.
- Eskatutako prestakuntzan parte hartu izanaren ziurtagiriak.
- C1 euskara-mailaren ziurtagiria.
- Antzeko lanetan izandako esperientzia egiaztatzen duten ziurtagiriak, zerbitzuak egin dituzten enpresek emandakoak, edo, hala badagokio, aitorpena (Administrazio honek agiri horien baliozkotasuna egiaztatu ahalko du), baita administrazio horrek dituen eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriak ere (lan-bizitzaren ziurtagiria, lan-kontratua…).

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar du baliabide horiek benetan erabilgarri daudela, atal honetan adierazitako dokumentuen bidez.

---

22 ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

22.1 Esleitzeko irizpide bakarra dago: Ez

22.2 Hainbat esleipen-irizpide daude: Bai.

- **BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK:**KALITATEAREKIN zerikusia duten eta 22.2.1 atalean azaldutako irizpideak dira, eta ezin dira automatikoki kuantifikatu. **49 puntu** emango dira gehienez.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 103

- **AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:** 22.2.2 atalean azaldutako irizpideak dira, eta formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezke. **51 puntu** emango dira gehienez.
  - Eskaintza ekonomikoak: **31 puntu** izango dituzte gehienez.
  - Automatikoki ebalua daitezkeen beste irizpide batzuk (automatikoki kuantifika daitezkeen KALITATEAREKIN lotutako irizpideak): **20 puntu** emango dira gehienez.

22.2.1 **BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: (B GUTUN-AZALA):**

	BALIO-IRITZI BATEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK:	HAZTAPENA
1	• **Zerbitzuaren helburuak eta justifikazioa (14 puntu)** Baloratuko da gazteen egoera eta beharretara zerbitzua moldatzea, planteatuko kontzeptuen arteko argitasuna, gaurkotasuna, koherentzia,…	**14 puntu**
2	• **Zerbitzua emateko metodologia eta protokoloak: (15 puntu)** ○ **Banakako esku-hartzearen nolakotasuna (lehen arreta, jarraipena, kasuaren itxiera) eta taldeko esku-hartzearen nolakotasuna**. Baloratuko da: tresnak eta baliabideak zehatz deskribatzea, ardurak eta funtzioak ondo banatuta egotea, esku-hartze faseen zehaztasuna,… ○ **Ekintzak eta tailerrak**: planteatuko ekintzen eta tailerren egokitasuna, metodologia gazteei zuzendua izatea eta gazteen beharren arabera planteatzea baloratuko da.	**15 puntu**
3	• **Koordinazioa eta deribazioa estrategia eta protokoloa** (15 puntu) prozesuaren zehaztapena, agenteak eta tresnak deskribatzea eta arduradun eta funtzioak ondo zehaztea baloratuko da.	**15 puntu**
4	• **Zabalkunde eta sentsibilizazio proposamena** (5 puntu): estrategiaren argitasuna eta ekintza berritzaileen txertatzea baloratuko da.	**5 puntu**
GUZTIRA		**49 puntu**

OHARRA: Ez da, inolaz ere, balio-iritziari dagozkion esleipen-irizpideei buruzko informazioarekin batera, irizpide hauei buruzko informaziorik eman behar: formularen bidez ebalua daitezkeen irizpideak edo C gutun-azalean sartu behar diren irizpideak. Horrela gertatuz gero, eskaintza kanpoan geratuko litzateke.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 103

22.2.2.- **FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:** (C GUTUN-AZALA):

AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:		HAZTAPENA
1	**ARRETA-ZERBITZURAKO ESKAINTZA EKONOMIKOA** **20 puntu** banatuko zaizkio gehienez dagokion eskaintza ekonomikoari, eta honela banatuko dira: -Onartutako proposamen ekonomiko guztiak ordenatuko dira, zenbateko handienetik (lehenengoa) zenbateko txikienera (azkena), eta kanpo utziko dira lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen dutenak (beti, BEZik gabe). - Bakoitzak eskaintzen duen baja-koefizientea honela kalkulatuko da: BEi = 100 * [1 - (OLi / PL)] Bertan: OLi → lizitatzaile bakoitzaren eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe PL → kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe BEi → lizitatzaile bakoitzak aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren baja, ehunekotan - Baja-koefizienteak ezagutu ondoren, balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak zehaztuko dira, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. **% 10eko "ausarkeria-atalasea" ezarriko da,** beraz, ehuneko horretatik beherako batez besteko baja guztiak anormaltzat edo neurriz kanpokotzat joko dira (batez besteko baja hau izango da: onartutako eskaintza ekonomiko guztien bajen batez besteko aritmetikoa). - Puntu honetan, neurriz kanpoko baja duen lizitatzaile orori entzunaldia emango zaio, bere eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta eskaintzaren baldintzak zehatz ditzan; bereziki, kontratua egikaritzeko prozedurak, hartutako irtenbide teknikoek eta prestazioa egikaritzeko dituen baldintza bereziki mesedegarriek ahalbidetzen duten aurrezkiari dagokionez. Baja anormala duten lizitatzaileen justifikazioak jaso ondoren, justifikazio-dokumentazioa eta, hala badagokio, eskatutako eta horretarako igorritako txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratazio-mahaiak uste badu eskaintzak ezin direla bete neurriz kanpoko balioen ondorioz, dagokion errefusatze-proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari, eta horrek lizitaziotik kanpo utziko du. - Aurreko izapidearen ondoren, zenbateko txikiena duen eskaintza ekonomikoa identifikatuko da, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ondoren baztertu ez diren eskaintza ekonomiko guztien artean. - Aurkeztu diren eta baztertu ez diren eskaintza guztietatik zenbateko txikiena duen eskaintza ekonomikoaren baja kalkulatuko da: BEmin = 100 * [1 - (OLmin / PL)]	**20 puntu**

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 103

	Bertan: BEmin → aurkeztutako eta baztertu gabeko eskaintza ekonomikoen artean zenbateko txikiena duenaren baja. PL → kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe. OLmin → baztertu ez diren lizitatzaileek proposatutako gutxieneko eskaintza ekonomikoa. - Puntuak honela esleituko dira: **20 puntu** esleituko zaizkio baztertu ez den eta zenbateko txikiena duen eskaintza ekonomikoari. 0 puntu emango zaizkio Administrazioaren ereduzko eskaintzari. - Eskaintza bakoitzaren puntuazio ekonomikoa kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da 0 puntuen 20 punturen artean; 0 puntu izango ditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina den eskaintzak, eta **20 puntu** baztertu gabeko zenbateko txikiena duen eskaintza ekonomikoak (BEZik gabe). Horretarako, ondoren jaso den formularen erabiliko da. - Eskaintzaren batek ere ez badu gainditzen **% 10eko baja** lizitazio-prezioaren gainean, **20 puntu emango zaizkio** % 10eko beherapenari. Hau da, eskaintza bakoitzaren puntuazio ekonomikoa kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da 0 puntuen eta 20 punturen artean; 0 puntu izango ditu lizitazio-aurrekontu tipoaren berdina den eskaintzak, eta **20 puntu** lizitazio-prezioaren **% 10eko baja** duenak. POEi = **20** * (BEi /BEmin) Bertan: BEi → lizitatzaile bakoitzak aurkeztutako eskaintzaren puntuazio ekonomikoa BEi → lizitatzaile bakoitzak aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren baja, ehunekotan BEmin → baztertu gabeko eskaintza ekonomikoen artean zenbateko txikiena duenaren baja, ehunekotan	
2	**ORDU-POLTSARAKO ESKAINITAKO UNITATE-PREZIOA:** Lan-poltsarako **PREZIOA/ORDUA** eskaintza ekonomikoa (BEZik gabe) baloratuko da. Eskaintza ekonomikoaren irizpideari dagozkion puntuak esleitzeko formula honako hau izango da: $$Vi = \frac{11 \times Bi}{Max\ (Bs, Bmax)}$$ Vi: eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balorazioa Bi: baloratutako eskaintzaren jaitsieraren % Bs: % 10eko baja lizitazio prezioarekiko Bmax: lizitaziora aurkeztutakoen artean baja handiena Max (Bs, Bmax): adierazitako bien arteko balio maximoa Lizitazioaren oinarria berdintzen duten eskaintzek 0 puntu izango dituzte.	**11 puntu**

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 103

3	**KONTRATUARI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA HANDIENA** **Kontratua betetzeko atxikita dagoen langileak duen prestakuntza-maila altuena, nahitaezkotzat jotzen denetik gora**, baloratuko da (50 ordu genero- edo feminismo-arloan eta 50 ordu sexologia-arloan). -**Genero edo feminismoaren arloko trebakuntza** gehigarria honela puntuatuko da: **gehienez 10 puntu** banatuko dira; 10 ordutik gorako trebakuntza baloratuko da, ikastaro berdinean egindakoak edo desberdinetan: ● 10 ordu: 2 puntu ● 11-20 ordu: 4 puntu ● 21-40 ordu: 6 puntu ● 41 ordutik gora: 10 puntu -**Feminismoaren arloko trebakuntza** gehigarria honela puntuatuko da: **gehienez 10 puntu** banatuko dira; 10 ordutik gorako trebakuntza baloratuko da, ikastaro berdinean egindakoak edo desberdinetan: ● 10 ordu: 2 puntu ● 11-20 ordu: 4 puntu ● 21-40 ordu: 6 puntu ● 41 ordutik gora: 10 puntu *OHARRA: Giza baliabideen zerrendarekin batera **ikastaroetara joan izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, horiek baloratzeko. Ziurtagirian, ikastaroaren iraupena (orduak) adierazi behar dira.***	**20 puntu**
GUZTIRA		**51 puntu**

22.3 ESKAINTZA NABARMENKI BAXUEGIAK:

Parametro edo muga hauek ezarri dira horiek hautemateko:

% 10eko "ausarkeria-atalasea" ezarri da, onartutako eskaintza ekonomiko guztien batez besteko bajaren gainean.

Lizitatzaile bakarra egonez gero, eskaintza ekonomikoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino ehuneko 25 unitate txikiagoa bada.

22.4 GUTXIENEKO PUNTUAZIO-ATALASEA: Ez da ezarri.

23 BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:

Bi enpresa lizitatzaile edo gehiagoren artean berdintasuna egonez gero, esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboen ikuspegitik, honako egoera hau lehentasun-ordenaren arabera egiaztatzen duen lizitatzailearen alde egingo da esleipen-proposamena:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 103

1.: % 2tik gorako desgaitasuna duten langileen kopurua.

2.: Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

3.: Laneratze-enpresak.

---

24 GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak ondorengo artxibo elektroniko edo gutun-azaletan aurkeztuko dira.

24.1 A GUTUN-AZALA/FITXATEGIA: AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AGIRIAK.

Gutun-azal horretan aurkeztu behar dira baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazitako agiriak.

EKABren IV. zatiari dagokionez, operadore ekonomikoak *a* atala beteko du bakarrik: Bai/Ez

OHARRA: A gutun-azal honetan ez da inola ere sartu beharko eskaintza ekonomikoaren dokumentu garrantzitsuei buruzko informaziorik, ezta formula bidez edo automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko informaziorik ere. Hala gertatuz gero, eskaintza kanpo utziko litzateke. Lizitatzaile bakarra badago, kontratazio-mahaiak hartuko du erabakia.

24.2 B GUTUN-AZALA/FITXATEGIA: EBALUATZEKO BALIO-IRITZIA BEHAR DUEN ESKAINTZA:

Gutun-azal honetan, **PROIEKTU TEKNIKOA** (dosierra, behar bezala orrikatua eta ordenatua) aurkeztu behar da, eta ziurtatu behar da aurreko **22.2.1** atalean ezarritako balio-iritziaren mendeko hiru irizpideak baloratzeko behar den informazioa ematen dela.

Proiektuak arreta-zerbitzuaren egiturari, kudeaketari eta antolaketari buruzko proposamena jasoko du, eta honako puntu hauek jasoko ditu:

- Zerbitzuaren helburuak eta justifikazioa
- Zerbitzua emateko metodologia eta protokoloak:
  - o Banakako (lehen arreta, jarraipena, kasua ixtea) eta taldeko esku-hartzearen izaera.
  - o Jarduerak eta tailerrak
- Koordinazio- eta bideratze-estrategia eta -protokoloak
- Hedapen- eta sentsibilizazio-proposamena: estrategia eta ekintza berritzaileak.

OHARRA: B gutun-azal honetan ez da inola ere sartu beharko eskaintza ekonomikoari buruzko informaziorik, ezta automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko informaziorik ere. Hala gertatuz gero, eskaintza kanpo utziko litzateke. Lizitatzaile bakarra badago, kontratazio-mahaiak hartuko du erabakia.

24.3 C GUTUN-AZALA/FITXATEGIA: AUTOMATIKOKI EDO FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA

Gutun-azal honetan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- **AKPAren IV.1 ERANSKINA**: Bertan daude:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 103

- **ESKAINTZA EKONOMIKOA,** IV.1 eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
- **ADIERAZPENA,** aurreko 22.2.2. atalean ezarritako balorazio automatikoko gainerako irizpideak baloratzeko konpromisoarena, sorta bakoitzerako xedatutakoaren arabera.

- **Atxikitutako langileen PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN ZIURTAGIRIAK**

24.4 Aldaerak onartzen dira: Ez

---

25 ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA.

Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako gainerako agiriekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, hala badagokio:

25.1 Kontratuaren berariazko klausulen 21.2 klausulan jasotzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa:

Kaudimen ekonomikorako, berariazko klausulen 21.2.1. atalean azaldutakoa.
Kaudimen teknikorako, berariazko klausulen 21.2.2. atalean azaldutakoa.

Edo berariazko klausulen 21.3. atalean azaldutako sailkapenaren bidez.

25.2 Kontratuaren berariazko klausulen 21.6 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri daudela egiaztatzeko dokumentazioa:

- Gaikuntza-tituluen jatorrizko dokumentazioa edo fotokopia konpultsatua (Lizentzia edo gradua).
-Eskatutako prestakuntza egiaztatzen duten agiriak (gutxienez 50 ordu).
-C1 euskara-maila edo baliokidea egiaztatzen duen agiria.

-Hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskumena duen organoak ikus-onetsitako edo egiaztatutako **agirien** bitartez **frogatuko** da esperientzia espezifikoa aholkularitza eta arreta psikologikoko zerbitzuetan; eta jasotzailea subjektu pribatua bada, horrek emandako enpresa-ziurtagiriaren bidez, edo, halakorik ez badago, enpresaburuaren deklarazioaren bidez, prestazioa eman dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera (lan-bizitzaren ziurtagiria, lan-kontratua...).

---

26 PROZEDURARI LOTUTAKO KLAUSULA GEHIGARRIAK:

26.1 Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 103

26.1.1 Eskaerak aurkezteko azken eguna: 12 egun, eskaintzak aurkezteko azken egunaren aurretik.

26.1.2 Eskuratzeko azken eguna: 6 egun, eskaintzak aurkezteko azken egunaren aurretik.

26.2 Berariazko konpentsazio-modu bat aurreikusten da kasu hauetan: botere adjudikatzaileak kontratua egiteari uko egiten badio eta prozeduran atzera egiten badu: Ez

26.3 Kontratua esleitzeko gehieneko epea ez da izango SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoa: Ez

26.4 Baldintza orokorren 23.1 klausulan adierazitako dokumentazioa osatzeko kontratua formalizatu aurretik aurkeztu behar diren agiriak: Ez

---

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

---

27 KONTRATUA LAGATZEA. Kontratua lagatzeko bestelako inguruabarrak aurreikusi dira baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusitakoez gain: Ez

28 ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA:

Arlo horrekin lotuta, Laneko arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko, enpresa esleipendunari agiri hauek eskatuko zaizkio:

- Enpresaren antolamendu-modalitatea lan-arriskuen prebentzioan.
- Bete beharreko lanpostuetatik eratorritako arriskuen ebaluazioa eta ezarri beharreko prebentzio-neurriak.
- Prestakuntzaren egiaztapena eta lanposturako eskatzen den prebentzioari buruzko informazioa.

29.- HONAKO ALDERDI HAUEK SARTZEAREN JARRAIPEN TAULA: SOZIALAK, INGURUMEN-ARLOKOAK ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTA DAUDEN BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOEI BURUZKOAK.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 103

Alderdiak:	SOZIALAK EDO ENPLEGUARI LOTUTAKOAK				INGURUMEN -ARLOKOAK	LINGUISTIKOAK
	BEREZIKI			BESTE BATZUK		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	Laneko arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren xedea						
Kaudimen-betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Esleipen-irizpideak						
Exekuzio-baldintza bereziak		**Bai**		**Bai**	**Bai**	**Bai**

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 103

Galdakaoko Udala

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea kontratu honen klausula espezifikoen 1. klausulan dago adierazita, eta preskripzio tekniko berezien pleguan definituta.

Xedea lotetan banatua denean, lote bakoitzaren xedea kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausulan adierazi da, eta preskripzio tekniko berezien pleguan definitu.

CPV kodea eta prestazioaren zerbitzu-kategoria kontratuaren klausula espezifikoen 1.3 eta 1.5

klausuletan adierazi dira, hurrenez hurren.

Kontratua segidako traktukoa denean eta haren xedea osatzen duten prestazio-unitateak ez daudenean zehatz definituta, botere esleitzaileak eskatutako prestazio-unitate kopurua gauzatuko du kontratistak.

2.- KONTRATU-IZAERAKO DOKUMENTUAK.

Kontratu-izaera izango dute dokumentu hauek:

a) Administrazio-klausula berezien plegua.
b) Preskripzio tekniko berezien plegua.
c) Kontratua formalizatzeko agiria.
d) Lan-programa, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan berariaz adierazten bada.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Kontratua administratiboa da eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan beharko da.

3.2.- Kontratu-izaerako dokumentuetan aurreikusten ez denerako, honako hauen arabera arautuko da kontratua:

a) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).
b) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (urriaren 30eko 30/2007) partzialki garatzen duena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
d) Estatuko zein tokiko esparruan kontratazioa arautzen duen beste xedapen aplikagarri oro.
e) Datuak babesteko Espainiako zein Europar Batasuneko araudia.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 103

Arau horietan jaso ez diren gaiei dagokienez, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horietan ere araututa ez baleude, zuzenbide pribatukoak.

3.3- Alderdiak espresuki geratzen dira kontratu-izaerako dokumentuetan jasotakoaren mende.

Dokumentuetan xedatutakoaren berri ez izateak ez du kontratista horiek betetzetik salbuetsiko, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak klausula guztiak onartzen dituela, salbuespen edo erreserbarik gabe.

4.- HAINBAT GAIRI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, DESGAITUEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA, DESGAITUEN KOPURU EDO EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATATZEKO OBLIGAZIOA ETA DATUEN BABESA.
Organismo hauetan lor daiteke gai zehatz horiei buruzko informazioa:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE).

4.2.- Zergak: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE Sozietate Publikoa.

4.4.- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5.- Desgaituen gizarteratzea eta laneratzea eta desgaituen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko obligazioa: LANBIDE organismo autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, IZAPIDETZE AURRERATUA ETA BALIO ZENBATETSIA.
5.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan adierazitakoa da, eta klausula horretan xedatutako urteko kuotetan eta loteetan banatzen da, dagokionean.

5.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan nahikoa kreditu zehatz dago kontratuaren ondoriozko obligazioei aurre egiteko.

5.3.- Espedientea izapidetze aurreratukoa bada kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera, kontratuaren esleipena egiteko baldintza da nahikoa kreditu egoki egotea dagokion ekitaldi ekonomikoan.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 103

5.4.- Balio zenbatetsia kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan adierazitakoa da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1.- Kontratuaren prezioa oroharreko prezioaren bidez zehazten denean: prezioa honenbesteko prezioaren bidez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta ezingo du gainditu kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan adierazten den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe).

6.2.- Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bidez zehazten denean: prezioa prestazioaren osagaien, gauzatze-unitateen edo denbora-unitateen prestazioaren unitateko prezioen bidez zehazten den kontratuetan:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen denean: prezioa lortzeko esleipendunak eskainitako unitateko prezioa unitate-kopuruaz biderkatuko da.

b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua ez denean zehaztasunez definitzen:
1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren baliokidea izan daiteke edo, esleipendunak lizitazioaren unitateko prezioen murrizketa bat eskaini badu, kontratazio-organoak ebatzitako proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu horretan, aurrekontuaren benetako gastua botere esleitzailearen benetako beharren araberakoa izango da, eta botere horrek ez du obligaziorik izango unitate kopuru jakin bat eskatzeko edo aurrekontu guztia erabiltzeko.

6.3.- Prezioa ebazteko bi sistemak erabiliko balira (oroharreko prezioa eta unitateko prezioa), bat prestazioaren zati batzuetan eta beste batzuetan, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan eta baldintza orokorren 6.1 et 6.2 klausuletan xedatutakoaren arabera jokatuko da.

6.4.- Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea esleipen-ebazpenean zehaztuko da; bertan, BEZa adieraziko da, partida independente gisa, bai eta zenbait urtetarako banaketa, dagokionean.

6.5.- Kontratuaren prezioak edo prezioek aplikatu beharreko tributu, tasa eta kanon guztiak biltzen dituzte, bai eta kontratuaren baldintzak betetzetik eratorritako beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan adierazi bada bakarrik berrazter daitezke prezioak, klausula horretan jasotako formula aplikatuta.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 103

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: kontratua gauzatzeko epea kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan adierazitako datan hasiko da, eta honako hau izango da:

a) Eskaintzetan ezin badaiteke egin guztizko epea eta/edo epe partzialak murrizteko eskaintzarik: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan adierazitakoa.
b) Eskaintzetan guztizko epea eta/edo epe partzialak murrizteko aukera badago: esleipendunak eskainitakoak.

Epe horiek SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera baino ezingo dira luzatu.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, dagokionean, epe partzialak kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 eta 6.3 klausuletan adierazitakoak dira, hurrenez hurren. Kontratuaren hasiera-data kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan adierazitakoa izango da.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: kontratuaren klausula espezifikoen 6.4 klausulan hala ebazten denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki dezake. kasu horretan, luzapena nahitaez bete beharko du kontratistak, salbu eta SPKLren 198.6 artikuluan jasotako kontratua suntsiarazteko kausaren bat badago. Kontratuaren luzapena kontratistarentzako nahitaezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak aurreabisua eman beharko dio kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago, gutxienez.

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpen bidez ebatziko da, eta ebazpen-prozesuak jarduketa hauek izango ditu:

a) Kontratua sustatu duen organoaren txostena, kontratu-harremana luzatzeko beharra eragiten duten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea adierazita.
b) Bost (5) egun balioduneko entzunaldia, kontratistarentzat.
c) Txosten juridikoa.
d) Salbuetsita ez dagoenean, kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena.
e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK.

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletako baten bidez egin daiteke, eta SPKLren 106.3 artikuluak xedatzen duen moduetako baten bidez gordailutuko da. Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako esleipendunaren kasuan, behin-behineko bermea itzuliko zaio behin betiko bermea eratzen duenean, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatutakoarekin bat.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 103

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko atalean adierazitako formulen bidez eman daitezke, bai eta prezioaren atxikipen bidez ere, azken hori onartuta badago kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausularen arabera.

Behin betiko bermea eta berme osagarria Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira beti.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan (aurrerantzean, ABEE), behin-behineko eta behin betiko bermeak kideetako bakar batek edo batzuek era ditzakete, betiere elkarrekin eskatzen den zenbateko osoa jartzen badute eta modu bateratu eta solidarioan kide guztien bermea ezartzen bada.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

10.1.- Galdakaoko Udaleko kontratatzailearen profila: www.galdakao.eus/kontratugilearen-profila

Galdakaoko Udaleko kontratatzailearen profilera sartzeko http://www.contratacion.euskadi.eus esteka ere erabil daiteke.

10.2.- Kontratatzailearen profilean, honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

1. Aurretiazko informazioaren iragarkia, dagokionean.
2. Lizitazioaren iragarkia.
3. Espedientea onartzeko ebazpena.
4. Administrazio-klausula berezien plegua, preskripzio tekniko berezien plegua eta agiri osagarriak.
5. Kontratuaren xede zehatza eta iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.
6. Memoria bat, kontratazioa egiteko beharra, kontratazioaren egokitasuna eta efizientzia eta kontratuaren xedearekin duen erlazio zuzen, argi eta proportzionala justifikatzeko.
7. Bitarteko nahikorik ezari buruzko txostena.
8. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.
9. Merkatuaren aurretiazko kontsultarik egin bada, egindako kontsulten txostena, behar bezala arrazoitua, SPKLren 115. artikuluan xedatutakoaren arabera.
10. KAEB dokumentua betetzeko xml fitxategia.
11. Kontratazio-organoari laguntzen dioten kontratazio-mahaien osaera eta kideen karguak.
12. Balio-judizio baten araberako esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeko kideen izendapena, horien parte-hartzea adierazi denean kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulan. Kide bakoitzaren kargua ere adierazi beharko da.
13. Kontratua ezagutzera emateko bitartekoak eta argitalpen horien estekak.
14. Dagokionean, administrazio-klausula berezien plegua eta/edo preskripzio tekniko berezien plegua aldatzen dituzten kontratazio-organoaren ebazpenak, bai eta eskaintzak aurkezteko epea luzatu eta muga-egun berriak ezartzen dituztenak ere, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluen arabera jarduketen atzeraeragina erabakitzearen kalterik gabe.
15. Akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko administrazio-klausula berezien plegua, eta/edo preskripzio tekniko berezien plegua aldatzen dituzten kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak, halakorik dagoenean.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 103

16. Pleguak eta/edo gainerako agiriak argitzeko oharrak, hala erantzunak lotesleak direnean eta horrela azaldu denean kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.3 klausulan nola erantzunak lotesleak ez direnean.
17. Esleipen-prozeduran parte hartu duten lizitatzaileen izena eta nortasuna.
18. **Kontratazio-mahaiaren saio publikoak egingo diren leku eta datak, bai eta horien aldaketak ere, dagokionean, eta horiek ikusteko erabil daitekeen webgunea, halakorik bada.**
19. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda; baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia ere adieraziko da.
20. Kontratazio-mahaiaren aktak.
21. Balio-judizioen bidez kuantifikatzen diren esleipen-irizpideen balorazio-txostena, eskaintza bakoitzarentzat.
22. Dagokionean, merkeegiak direlako susmoa piztu duten eskaintzen buruzko txostena (SPKLren 149.4 artikuluan dauden araututa).
23. Eskaintzei emandako puntuazioak, horiek ez direnean aktetan jaso edota aktak idatzi eta argitaratu bitartean.
24. Kontratua esleitzeko ebazpena.
25. Esleipendunaren izena.
26. Esleipenaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
27. Kontratuaren formalizazioaren iragarkia eta kontratua bera.
28. Dagokionean, kontratua ez egiteko datu guztiak ez argitaratzeko arrazoiak biltzen dituen txostena, SPKLren 154.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.
29. Kontratua ez esleitzea edo ez egitea erabakitzeko kontratazio-organoaren ebazpena.
30. Esleipen-prozedurari uko egitea erabakitzeko kontratazio-organoaren ebazpena.
31. Esleipen-prozedura esleitu gabe geratu dela adierazteko kontratazio-organoaren ebazpena.
32. Errekurtsoak aurkezteko modua eta esleipen-prozeduraren balizko etetea, aurkeztutako errekurtsoak direla eta.
33. Esleipen-prozedura bertan behera geratu dela adierazteko ebazpena.
34. Kontratua luzatzeko kontratazio-organoaren ebazpena.
35. Kontratua aldatzeko iragarkiak, kontratua aldatzea erabakitzeko kontratazio-organoaren ebazpena, horren justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta luzapena onetsi aurretik bildu diren txosten guztiak, halakorik badago.
36. Kontratuaren lagapena onartzeko kontratazio-organoaren ebazpena.
37. ABEEaren osaeran aldaketak baimentzeko kontratazio-organoaren ebazpena.

10.3.- Dokumentazio osagarriari edo informazio gehigarriari buruzko kontsultak eta eskaera egiteko, interesdunek kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 eta 5. klausuletan jasotako helbide elektronikoetara idatz dezakete. Idatziz egingo dira, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan adierazitako muga-egunera arte, eta erantzuteko muga-eguna kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan adierazitakoa izango da (egun hori barne).

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 103

II.- LIZITAZIOAA.

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1.- Kontratazio-prozeduran parte har dezakete pertsona fisiko edo juridiko espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, ez badute kontratatzeko debekurik eta kaudimen-baldintzak betetzen badituzte edo, bestela, beharrezko sailkapena badute, eta, dagokionean, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan ezartzen diren gaikuntzak badituzte (baldin eta klausula horretan adierazi bada gaikuntza horiek edukitzeko data «eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna» dela).

Era berean, aurreko paragrafoan jasotako baldintzak betetzen dituzten zenbait pertsonak ere parte har dezakete, ABEE batean elkartuta, legez ezarritako baldintzen arabera.

SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek parte har dezakete, bai eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Hitzarmen sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek eta Europar Batasunetik kanpokoek ere, SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatutakoa betetzen badituzte, hurrenez hurren.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartzen badira. Era berean, ezin dute ABEE baten kide gisa parte hartu beren kasa proposamen bat aurkeztu duten pertsonek, ez eta aldi berean zenbait ABEEtan parte hartu ere. Arau horiek urratzeak pertsona horiek sinatutako proposamen guztiak atzera botatzea ekarriko du.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 103

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 eta 20.8 klausulen arabera, hurrenez hurren, kontratua gizarteratzeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat erreserbatua badago edo enplegu babestuko programen esparruan sartu bada, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat eginez, edo erakunde jakin batzuentzat erreserbatu bada, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat eginez, parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da legez ezarritako baldintzak betetzea (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoa; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, gizarteratzeko enpresen araubidea arautzen duena; eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

11.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta enpresa- edo lanbide-gaikuntzari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazten bada «kontratua formalizatu aurretik» eduki behar direla) eta kontratatzeko debekurik ez izatearen baldintzak indarrean egon beharko dute eskaintza aurkezteko azkeneko egunean eta kontratua burutzen den egunean.

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileei eskatu ahalko die ziurtagiri eta justifikatzeko dokumentu guztiak edo horien zati bat aurkezteko prozeduraren edozein unetan, prozedura ondo egiten dela bermatzeko, kontratua esleitu aurretik. Era berean, aurkeztutako ziurtagri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko eskatu ahal izango du, edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko.

11.5.- Eskaintza aurkeztuta, lizitatzaileak plegu honetako klausulak eta kontratu-izaerako gainerako dokumentuak bere gain hartzen ditu inolako salbuespen eta erreserbarik gabe, eta baimena ematen dio kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari esleipen-prozeduraren edozein unetan kontsultatzeko honako hauetan jasotako datuak: Euskal Autonomia Erkidegoko lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistroa, sektore publikoko lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofiziala edo Europar Batasuneko estatu baten operadore ekonomikoen zerrenda ofizialak edo datu-base nazionala, baldin eta azken horiek doan erabil badaitezke. Operadore ekonomikoek ez dute agiririk aurkeztu beharko erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzia edo ofizialki itzulita aurkeztu beharko da.

12.2.- **Bitartekoak**.

12.2.1.- **Bitarteko elektronikoak**: Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak elektronikoak ez direla adierazten ez bada,

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 103

eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira LICITACIÓN ELECTRÓNICA izeneko aplikazioaren bidez (PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA de EUSKADI), ESTEKA honen bidez: www.contratacion.euskadi.eus.

12.2.1.1.- Sistema hori erabiltzeko baldintzak:

Baldintza administratiboak:

a) EAEko administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digital bat izatea. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
   - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
   - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
   - Nortasun agiri nazional elektronikoa.
   - Camerfirma (entitatea, herritarra).

b) Egoera hauetako batean egotea:
   a. Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
   b. Alta emanda egotea aldi baterako gaikuntzako sisteman.
   c. Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki ABEE gisa eratzeko konpromisoa hartuta, esleipena haien alde ematen bada ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan kontsultatu daiteke: https://apps.euskadi.eus/w32content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

3. **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: Tel. 945016298. Email:** laguntzakpe@euskadi.eus

12.2.1.2.- **Aurkezteko modua:**

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazitako dokumentu bakoitza aplikazioan agertzen den eta dagokion gutun-azalean erantsi behar dira, klausula horrekin bat eginez.
b) Honako luzapen hauekin gordetako dokumentuak bakarrik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuan bidaltzea gomendatzen da.
d) Eskaintza aurkezteko epearen barruan jaso dela joko da baldin eta transmisioa epe horren barruan hasten bada eta arrakastaz amaitzen bada.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 103

12.2.2.- **Baliabide ez-elektronikoak edo paperezkoak:**

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Agiriak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, gutun-azal horretan sartutako dokumentuen aurkibide zenbakiduna jarriko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean, datu hauek adieraziko dira:

1) Kasuan kasuko gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo beste batzuk), kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan xedatutakoaren arabera.
2) Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta xedea.
3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, haren izen soziala eta IFZ adieraziko dira; eta pertsona fisikoa bada, haren izen-abizenak eta NAN zenbakia edo dokumentu baliokidea.
4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NAN zenbakia edo agiri baliokidea.

b) Gutun-azalak lizitazio-iragarkian ezarritako epean – eguna eta ordua – aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.1 klausulan adierazitako erregistroan, edo posta-bulegoetan, ondoren bulego horietara bidaltzeko.

Dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten bada, lizitatzaileak egun berean jakinarazi beharko du bidalketa posta elektronikoz, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan agertzen den helbidera bidalita. Posta elektroniko bidezko iragarkia baliozkoa izango da soilik baldin eta jasota geratzen bada bidali eta jaso direla, datak eta komunikazioen eduki osoa, eta fidagarritasunez identifikatzen bada nori bidali zaion eta nori bidali zaion. Kasu horretan, kopia inprimatua eskuratuko da, eta espedienteari erantsiko zaio.

Bidalketa-iragarkiak kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa jaso behar du (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letrako 2) eta 3) ataletan ezarritakoaren arabera). Iragarkiarekin batera, posta-bulegoak emandako ezarpen-egiaztagiria aurkeztuko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako egunetik hamar (10) egun natural igaro eta dokumentazioa jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Esleipendunak izan ez diren eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari – espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz –, eta administrazio-bulegoetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Kontratua formalizatu zenetik zazpi (7) hilabete igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, agiriak jasotzera doan pertsonaren nortasuna egiaztatu beharko da aldez aurretik, NANa edo agiri baliokidea erakutsiz. Epe hori igarotakoan dokumentazioa ez bada hilabeteko (1) epean jasotzen, suntsitu egingo da.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 103

Jarduketa berberak egingo dira eta epe berberak aplikatuko dira prozeduran atzera egiten den kasuetan edo kontratua egiteari uko egiten zaionean.

12.3.- **Konfidentzialtasuna.**

Lizitatzaile batek emandako dokumentu bat konfidentziala dela adierazi nahi badu, esplizituki jakinarazi beharko du hori II.3 ERANSKINA beteta, eta argi islatu beharko du hori dokumentuan bertan, testuaren gainean edo orrialdearen ertzean dokumentua konfidentziala dela jarrita. Adierazpena ez bada horrela egiten, dokumentua ez da modu konfidentzialean tratatuko.

Aipatutako II.3 ERANSKINEAN, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta daudelako konfidentzialtzat jotako eskaintzaren informazio eta alderdiak adierazteaz gain, lotura hori justifikatzeko arrazoi zehatzak azaldu beharko dituzte.

Eskaintza ekonomikoak ez du inola ere izaera konfidentziala izango. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela dioen adierazpena egin izan ez balitz bezala jokatuko da.

Ezingo da konfidentzial gisa markatu lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio guztia edo eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio guztia. Kasu horretan, hots, konfidentzialtasunadierazpena ez bada ondo zedarritzen, kontratazio-organoak erabakiko du, modu arrazoituan, zer datu eta/edo dokumentu diren konfidentzialtzat hartzeko modukoak. Berdin jokatuko du kontratazio-organoak baldin eta adierazpenean ez bada jasotzen informazioa konfidentzialtzat hartzeko nahikoa arrazoitu eta funtsatutako arrazoirik.

Lizitatzaileak ez badu datu eta/edo dokumentu konfidentzialik markatu, emandako datu eta/edo dokumentuak konfidentzialak ez direla ulertuko da. Edonola ere, salbuespenez eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat hartu ahalko du markatu gabeko informazioa ere, enpresa-interes zilegiak mantentzeko asmoz.

Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ezingo da konfidentzial bezala markatu aurkezpenaren unean horrela markatu ez zen daturik.

Esleipen-prozeduran hasierako eskaintzaren parte ez zen dokumentaziorik erantsiz gero, aukera egongo da konfidentzial gisa markatzeko dokumentazio horretako datuak edo agiriak, klausula honetako aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzetan.

12.4.- **Dokumentazioa egiaztatzea.**

Botere esleitzaileak aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiazta dezake, hala esleipenprozeduran nola kontratua esleitu eta formalizatu ondoren. Datuak faltsuak izatea kontratua deuseztatzeko kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik deuseztatzen bada kontratua, operadore ekonomikoari egozteko moduko ez-betetzea izango da, eta izandako kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio botere esleitzaileari.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 103

12.5.- **Jakinarazpenak eta komunikazioak.**

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

12.5.1.1.- Esleipen-erabakia eta SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran definitutako izapidetze-egintzak jakinaraziko dira.

12.5.1.2.- Komunikaziotzat hartuko dira argibide-eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko errekerimenduak, plegu honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan jasota ez dauden beste izapidetze-egintza batzuk.

12.5.2.- Jakinarazpen eta komunikazioak lizitazio elektronikoko sistemaren bidez egingo dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez eta/edo udal egoitza elektronikoan agertuz: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/info.1

Hala ere, ahozko komunikazioa (edo posta elektronikoa) erabili ahal izango da prozeduraren funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian eta horrekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera.

12.5.3.- Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoz edo paperez aurkeztea.

Kasu guztietan, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, udal egoitza elektronikoa bitartez: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/info.1

Jakinarazpen edo komunikazio bat igortzen den bakoitzean, operadore ekonomikoek bidalketari buruzko ohar bat jasoko dute horretarako adierazi duten posta elektronikoaren helbidean.

Era berean, baldintza orokorren 12.5.1.2 klausulan definitutako komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez ere egingo dira, jakinarazpenak egiteko deskribatu den modu berean, salbu eta klausula espezifikoetan besterik adierazi bada. Kasu horretan, lizitatzaileek egindako argibide-eskaera edo errekerimenduei posta elektronikoz erantzuteko ezinbesteko baldintza izango da nahitaez sinatuta entregatu beharreko argibide, adierazpen eta dokumentuek lizitatzailea ordezkatzeko ahalordea duen pertsona baten sinadura digitala izatea.

Jakinarazpen eta komunikazioen ondoreetarako, II.8 ERANSKINEAN jasotako adierazpena aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta sinatuta.

13.- A ARTXIBO/ GUTUN-AZALA «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK».

13.1.- Gutun-azal horretan aurkeztu beharreko agirien zerrenda:

13.1.1.- Operadore ekonomikoaren **Kontratazio Agiri Europar Bakarra** (KAEB), behar bezala beteta.

Hori betetzeko, https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home edo

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 103

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es esteka eta kontratatzailearen profilean argitaratutako **xml** fitxategia erabiliko dira.

Era berean, beharrezko KAEBak aurkeztuko dira baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotako kasuetan.

13.1.2.- **Behin-behineko bermea**, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan eskatzen bada.

13.1.3.- **Bitartekoak kontratura adskribatzeko konpromisoa**, II.2 ERANSKINEAN ageri den ereduaren arabera.

13.1.4.- Prestazioa gauzatzeko langile arduradunen izenak eta gaikuntza profesionala, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulan eskatzen bada aurkeztea une honetan (bestela, esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileak geroago aurkeztuko du).

13.1.5.- Operadore ekonomikoak aurkeztutako informazio batzuen **konfidentzialtasun adierazpena**, II.3 ERANSKINEKO ereduaren arabera.

13.1.6.- **Formalki ABEE bat eratzeko konpromisoa**, II.4 ERANSKINEAN jasotakoa.
13.1.7.- Enpresa talde bereko zenbait operadore ekonomikok, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera, eskaintza aurkezten badute, **II.5 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.8.- Kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausularen araberako **loterik badago**, II.6 ERANSKINA beteko da, adierazteko zer lotetara aurkezten den eskaintza; eta adierazteko, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulak zenbait lote barnean hartzen dituzten eskaintzak aurkez badaitezke, eskaintza bateratuan loteen zer konbinazio aurkezten den.

13.1.9.- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Hitzarmena sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoen kasuan, kontratua Espainian gauzatu behar bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena erantsi behar dute, eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikziokoari uko egiten diotela adieraztekoa, hala balegokie.

13.1.10.- Europar Batasunetik kanpoko zenbait operadore ekonomiko badira, SPKLren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Era berean, kontratua Espainian gauzatu behar bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikziokoari uko egiten diotela adieraztekoa, hala balegokie.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 36. orrialdea, guztira 103

13.1.11.- **GALDAKAOKO UDALAREN AITORPEN OSAGARRIA, II.7 ERANSKINean** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.12.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.5.3 klausulan xedatutakoaren ondorioetarako, II.8 ERANSKINA bete beharko da.

13.2.-Kaudimenaren metaketa, ABEEen kasuan:

ABEE baten kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala zehazte aldera, hura osatzen duten operadore ekonomikoen ezaugarriak metatuko dira.

Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausularekin bat, bertan adierazitako kaudimenaren ordez 21.3 klausulan jasotako sailkapenarekin ordeztu badaiteke eta ABEEa osatzen duten operadore ekonomiko guztiek sailkapena badute, zerbitzu-kontratista gisa dituzten banako sailkapenak metatu egingo dira, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapen globala erdietsi ahal izateko.

Alabaina, operadore ekonomiko guztiek ez badute sailkapenik, ABEEak eskatzen diren kaudimen-baldintzak betetzen dituela ulertuko da baldin eta, kide guztien ezaugarriak metatu ondoren, elkarteak baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-baldintzak.
- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako taldea, azpitaldea eta kategoria.

13.3.- Kontratazio Agiri Europar Bakarraren (KAEB) inguruko arau espezifikoak:

13.3.1.- Kontratua lotetan banatua badago eta hautaketa-irizpideak, hots, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak, ez direnean berberak lote guztietan, KAEB bat aurkeztu beharko da lote bakoitzeko. Alabaina, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak berberak badira lote guztietan eta aldakuntza operadore ekonomikoak eskaintza aurkezten duen lote kopuruaren araberakoa bada, KAEB bakarra beteko da guztientzat.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) letran horrela adierazten bada, operadore ekonomikoek KAEBaren II. ataleko D sekzioa bete behar dute, honako datu hauek adierazita:

- azpikontratatu nahi diren kontratuaren zatiak, zerbitzariak edo horiekin lotutako zerbitzuak barne.
- azpikontratatu nahi diren zatiaren edo zati bakoitzaren ehunekoa

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 103

- azpikontratisten izena edo enpresa-profila, gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen erreferentzia gisa definituta.

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen b) letran adierazten bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatuko duten pertsonaren KAEBa aurkeztu beharko dute (II. ataleko A eta B sekzioak eta III. atala behar bezala beteta). Hainbat pertsona azpikontratatu behar badira, pertsona bakoitzeko KAEB bat aurkeztuko da, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- **Kanpoko bitartekoen kaudimenaren integrazioa:** operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen kaudimenera eta bitartekoetara jo nahi duenean, bere KAEBarekin batera erabili bahi dituen kaudimen eta/edo bitartekoen erakundeen KAEBa aurkeztu beharko du (pertsona edo operadore bakoitzeko KAEB bat), sinatuta eta II. ataleko A eta B sekzioak eta III.

atala behar bezala beteta, bai eta IV. atala ere, dagokionean.

13.3.4.- **ABEEak**: zenbait operadore ekonomikok ABEE batean parte hartu nahi duenean, operadore parte-hartzaile bakoitzeko KAEB bat aurkeztu beharko da, II-IV. ataletako informazioa emanda.

13.3.5.- Sailkapena: kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena erabili nahi bada, dagozkion taldeak, azpitaldeak eta kategoriak adierazi beharko dira KAEBaren II. ataleko A sekzioan, kontratazio-mahaiko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapen hori duen ziurtagiria.

13.3.6.- **Baztertzeko arrazoiak:** III. ataleko D sekzioan xedatutakoaren ondoreetarako, Espainiako legedian berariaz xedatutako arrazoitzat hartuko dira honako hauek (SPKLren 71.1 artikuluaren d) letra):

- **Ez betetzea lanpostuen % 2 desgaituentzat gordetzeko kuota, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluaren arabera.**
- **Ez betetzea berdintasun-plan bat izateko betebeharra, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (martxoaren 22ko 3/2007) 45. artikuluaren arabera, 250 langile baino gehiago dituzten operadore ekonomikoen kasuan.**

III.- GUTUN-AZALAK IREKI ETA ESKAINTZAK EBALUATZEA.

14.- ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA AZALPENEN ESKABIDEA.

14.1.- Kontratazio-mahaiak honelako eskaintzak baztertzea erabakiko du:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 103

a) Dokumenturen bat kontratuaren klausula espezifikoei buruzko 24. klausulan adierazitakoez bestelako gutun-azal batean sartuta dutenak eta, ondorioz, eskaintzaren sekretua arriskuan jartzen dutenak.
b) Eskaintzaren edukia segurtasunez ezagutzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.
c) Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen eskaintzak.
d) Lizitazioaren edo gehieneko unitateko prezioen oinarrizko aurrekontua gainditzen dutenak.
e) Plegu honetan jasotako eredutik nabarmen aldatzen diren eskaintza ekonomikoak.
f) Proposamenaren zenbatekoan errakuntza nabarmena ageri duten eskaintza ekonomikoak.
g) Lizitatzaileak hala onartuta, proposamena bideraezina egiten duen akats edo zehaztugabetasunen bat dutenak.
h) Administrazio-klausula partikularren pleguan edo preskripzio tekniko berezien pleguan ezarritako baldintzak edo betekizunak betetzen ez dituztenak.
i) Irakurtzea edo edukia atzitzea eragozten duen birusen bat dutenak.
j) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapidetzeko bideak ez direla elektronikoak eta eskaintza lizitazioaren iragarkian zehaztutako epea amaitu ondoren aurkezten bada.
k) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapidetzeko bideak ez direla elektronikoak eta eskaintzaren bidalketa baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan adierazitako epea baino geroago egin bada.
l) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapidetzeko bideak ez direla elektronikoak eta eskaintza aurkeztean gutun-azalak ez badaude kanpoaldean identifikatuta (A, B, C), edo gutun-azalak (B, C) ez badira itxita aurkeztu.

14.2.- Kontratazio mahaiak esleipen-proposamena egin aurretik edozein unetan eska ditzake eskaintzak ulertzeko beharrezkoak diren azalpenak. Argibideak emateko prozesu horretan ezin izango dira inola ere eskaintzan adierazitako baldintzak aldatu.

15.- AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA IREKI ETA KALIFIKATZEA (A GUTUN-AZALA)

15.1.- Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, kontratazio-mahaia bilduko da eta A gutunazalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako agiriak kalifikatuko ditu.

Aztertutako dokumentazioa betekizunak betetzen direla egiaztatzeko egokia eta behar bestekoa dela ondorioztatzen badu, lizitatzaile guztiak prozeduran onartzea erabakiko du.

Akats edo omisio zuzengarriak hautematen badira aztertutako dokumentazioan, hiru (3) egun balioduneko epea emango zaie lizitatzaileei, hautemandako akats eta/edo omisioak zuzentzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezaten.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orialdea, guztira 103

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzaileak onartu edo baztertuko diren erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

15.2.- Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

16.- BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ APLIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDE BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ATALA IREKI ETA EBALUATZEA (B GUTUN-AZALA).

16.1- Irekitzea.

Onartutako lizitatzaileek aurkeztutako **B gutun-azalak** irekiko ditu kontratazio-mahaiak

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Kontratazio-mahaiak dokumentazioa kontratuaren zerbitzu sustatzaileari igortzea erabaki dezake, eskaintzek preskripzio tekniko berezien pleguan ezarritako espezifikazioen kontrako edukia ez dutela egiazta dezan, eskaintzak ebaluatu ditzan eta dagokion txostena egin dezan.

Ebaluazioa egitean, zerbitzu sustatzaileak egiaztatzen badu eskaintzaren bat pleguen kontrakoa dela edo beste gutun-azal batean sartu behar diren dokumentu edo datuak jasotzen dituela, txostenean jasoko du inguruabar hori. Txostena prestatu ondoren, kontratazio-mahaiari igorriko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespenezko kasua: adituen batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatzea.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulak ezartzen badu eskaintzaren atal hori adituen batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatu behar duela, kontratazio-mahaiak dagokion organoari igorriko dio dokumentazioa, azken horrek ebaluazioa eta txostena egin ditzan. Txostena prestatu ondoren, kontratazio-mahaiari igorriko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- AUTOMATIKOKI FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ATALA IREKI ETA EBALUATZEA (C GUTUN-AZALA)

17.1. IREKI AURRETIK EGIN BEHARREKOAK.

7.1.1.- Balio-judizioen bidez aplikatzekoak diren irizpideak erabiltzen dira.
Baldintza orokorren 16.2 klausulan jasotako kasu orokorrean, C gutun-azalak ireki aurretik, kontratazio-mahaiak jarduera hauek egingo ditu:

Bilkuraren jendaurreko atala hasi aurretik:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 103

- Kontratuaren zerbitzu sustatzaileak egindako ebaluazio-txostena aztertuko du eta eskaintzak ebaluatu eta puntuazioak ezarriko dizkie.
- Baldintza orokorren 14.1 klausulan jasotako kasuetan, eskaintza edo eskaintzak baztertzea erabakiko du.
- Eskaintza bakoitzari esleitutako puntuazioak jakinaraziko dizkie bilkurara bertaratu direnei eta, hala badagokio, zein eskaintza baztertu diren eta zergatik azalduko du.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan jasotako salbuespenezko kasuan, ireki aurretik, adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak esleitutako puntuazioak jakinaraziko ditu kontratazio-mahaiak eta, hala badagokio, zein eskaintza baztertu diren eta zergatik azalduko du.

17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-judizioen bidez aplikatzekoak diren irizpideak.

Ireki aurretik, kontratazio-mahaiak lizitatzaileen onarpenaren edo bazterketaren berri emango du.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKI ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, aurretiazko jarduerak egin ondoren, jendaurreko bilkuran, eskaintzak baztertu ez zaizkien lizitatzaileek aurkeztutako C gutun-azalak ireki eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.

Jarraian, kontratazio-mahaiak jarduera hauek egingo ditu, beharrezkoak diren bilkuretan:

18.1.- Egiaztatuko du ea eskaintzak baldintza orokorren 14.1 klausulan jasotako baztertzeko arrazoiren bat betetzen duten eta, hala badagokio, baztertzeko erabakia hartuko du.

18.2.- Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren baldintza espezifikoen 22.3 klausulan ezarritako mugak gainditzen dituzten eta, baten batek gaindituko balitu, SPKLren 149.4 artikuluan jasotako jarduketak gauzatuko ditu. Kontratazio-mahaiak entzunaldiaren epea zehaztuko du eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, eta ezingo da inola ere hiru (3) egun baliodun baino txikiagoa eta hamar (10) egun baliodun baino handiagoa izan.

Prozedura hori amaituta, eskaintzak onartzea eta kontratazio-mahaiaren iritziz bete ezin direnak baztertzea proposatuko dio kontratazio-organoari.

18.3.- Eskaintzen puntuazioa kalkulatuko du eta hoberena zein den erabakiko du, eskaintza bakoitzak esleipen-irizpide guztietan lortutako puntuak batuta.

Baldin eta eskaintzaren bat baztertzea proposatu badu, ez du kontuan hartuko kalkulua egiteko.

Bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera lortu badute, kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan horretarako ezarritako berdinketa hausteko irizpide espezifikoak betetzen dituztela

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 103

egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute beroriek aurkeztu dituzten lizitatzaileek, hamar (10) egun balioduneko gehieneko epean. Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez balira irizpide espezifiko horiek ezarri, baldintza orokorren 19. klausulan berdinketa hausteko jasotako irizpideei jarraituko zaie.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan berdinketa hausteko irizpide espezifikorik jaso ez bada, honako irizpide sozial hauek aplikatuz ebatziko da kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean gertatutako berdinketa, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta eta hurrenkera honetan aplikatuz:

a) Lizitatzaileen plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen lizitatzailea.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen lizitatzailea.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

Irizpide horiek aplikatzeko orduan, lizitatzaileek egiaztatu egin beharko dituzte, hala badagokio, dagokien lan-kontratuen, gizarte-segurantzaren kotizazioko agirien edota aurrez aipatutako irizpide sozial horiek egiaztatzeko balio dezakeen eta zuzenbidean onartzen den beste edozein agiriren bidez.

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

20.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA.

Kontratazio-mahaiak puntuazio handienetik txikienerako ordenan sailkatuko ditu eta, sailkapen horretan oinarrituta, dagokion esleipen-proposamena kontratazio-organoari igorriko dio.

Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartuko du.

21.- ESLEIPENA EGIN AURRETIK EGIAZTA DAITEZKEEN AGIRIAK ETA DATUAK AURKEZTEA

<u>Aurkeztu beharreko dokumentazioa</u>

21.1.- Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartzen duenean, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari dokumentazio hau aurkezteko eskatuko zaio, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 103

1.1. Pertsona juridiko diren Espainiako lizitatzaileek eskrituraren edo eraketako dokumentuaren, estatutuen edo sorrerako ekitaldiaren agiriaren bidez egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna. Agiri horretan jaso beharko dira jarduera arautzen duten arauak eta kasuan kasuko erregistro publikoan inskribatuta daudela, pertsona juridiko motaren arabera, betiere.

1.2. Espainiakoak ez izanik, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu zuten estatuetakoak diren lizitatzaileek SPKLren 84.2 artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3. Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordetzea: baldin eta eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, sinatzaileak berariazko ahalorde askietsia aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, botere horrek behar bezala inskribatuta egon beharko du dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera aplikatu behar zaion araudiari jarraikiz inskribatzea beharrezkoa bada.

3.- Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausulari jarraikiz, kaudimeneko gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa baldin bada, hori egiaztatzeko, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du lizitatzaileak, sailkapenak betekizun horiek ordezkatu dituenean izan ezik.

4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan gaikuntza hori eskaintzak aurkezteko azken egunerako izan behar dela adierazten denean.

5.- Lizitatzaileak kontratua gauzatzeari atxiki behar izan dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak izatea: kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan jasotako dokumentazioa.

6.- Kontratuaren indarraldi osoan beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak izatea: lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta baliabideetara jo badu, V.1. ERANSKINEAN jasotako «Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak izateko konpromisoa» aurkeztu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLren 85. artikuluan jasotakoari jarraikiz (V.2 ERANSKINA).

8.- Bermea: behin betiko bermea (kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan hala eskatu ez bada izan ezik) eta, hala badagokio, berme osagarria eratu izanaren ziurtagiria.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 103

9.- Publizitate-gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala adierazi bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainketaren ziurtagiria.

10.- Kontratu erreserbatuak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 edo 20.8 klausulei jarraikiz, kontratua erreserbatua bada lizitatzaileak dokumentazio bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

11.- Kopia arruntaren bidez aurkeztutako dokumentuen originalak, hala eskatzen badira.

Ziurtagiri horiek bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez emandakoak izan daitezke.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan aipatutako erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatuta egoteak klausula horretan adierazitako ondorioak izango ditu, erregistro, zerrenda eta datu-base horietan jasotako datuen egiaztapenari dagokionez, baldin eta horiek atzitzea doakoa bada.

21.2.- Errekerimendua ez bada ezarritako epean behar bezala betetzen, eskaintza bertan behera utzi dela ulertuko da. Halakoetan, jarduketa hauek gauzatuko dira:

- Lizitatzailearen oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZik gabe), zigor gisa eta, lehenik eta behin, behin behineko bermearen kontra beteko da, SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoaren kalterik gabe.
- Hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

<u>Egiaztatu beharreko datuak</u>

Galdakaoko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko.

22.- **KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.**

22.1.- Proposamen esleipendunak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) lanegunen barruan esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak.

22.2.- Esleipenaren ebazpena jakinaraztearekin batera, hala badagokio, balio-judizioen bidez aplikatzekoak diren irizpide bidez ebaluatu diren eskaintzaren atalen ebaluazio-txostena eta eskaintza baxuegien justifikazioa aztertzeko txostena aurkeztuko zaizkie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 103

22.3.- Baldin eta 44. artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati esleitu behar badio, lizitatzaileari hamar egun (10) balioduneko epea emango zaio baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

22. 4.- Kasu guztietan, esleipena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da.

23.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

23. 1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluan ezarritako baldintza eta epeetan formalizatuko da, dokumentu hauek aurretiaz aurkeztuta:

a) ABEEa eratzearen eskritura publikoa, esleipendunak ABEE gisa elkarrekin aurkeztu badira.

b) Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan, hala badagokio, berariaz eskatzen diren aseguru-kontratuen polizak, zeinak aseguratu moduan jaso behar dituen kontratista, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan adierazitako botere esleitzailea. Gainera, dagozkion ordainketa-frogagiriak aurkeztu beharko dira.

c) Enpresa- edo lanbide-gaikuntza, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan zehaztuta badago eta, gainera, klausula horretan adierazi bada gaikuntza hori kontratua formalizatu aurretik izan behar dela.

d) Kontratistak tratamenduaren arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzea eskatzen duten kontratuetan, enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu beharko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziz.

Enpresa esleipendunak nahitaez jakinarazi beharko du aurreko paragrafoan aipatzen den adierazpenean emandako informazioan kontratuaren bizitzan zehar gertatzen den edozein aldaketa.

e) Zerbitzuak datu pertsonalen datuak tratatzea badakar, dagokion izaera pertsonaleko datuen konfidentzialtasun-kontratua formalizatuko da, Udalaren (fitxategiaren arduraduna) eta kontratistaren (Datu Pertsonalen Eranskinaren eta Tratamenduaren arduraduna) artean.

f) Kontratuaren klausula espezifikoen 26.4. klausulan adierazitako dokumentazioa, hala badagokio.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, hamabost (15) eguneko gehieneko epean, burutu denetik kontatzen hasita. Era berean, kontratua erregulazio harmonizatukoa denean, formalizazioaren iragarkia igorriko da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, formalizatu eta hamar (10) eguneko gehieneko epean.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 45. orrialdea, guztira 103

23.3.- Kontratua legez adierazitako epeetan formalizatzea ezinezkoa balitz, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZik gabe), zigor gisa eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra beteko da, SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoaren kalterik gabe.
- Eskaintzak sailkatu diren ordena kontuan hartuta hurrengo lizitatzaileari esleitzea kontratua, aurretiaz errekerimendua eginda eta baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin behineko bermea eskatu bada, kontratua formalizatu ondoren, automatikoki azkenduko da eta berehala itzuliko zaie kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei. Berori itzultzeko, aurkezteko erabili den erregimen bera erabiliko da.

V.- KONTRATUA GAUZATZEA.

24.- **KONTRATUAREN ARDURADUNA.**

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.2 klausulan adierazitako organoak kontratuaren jarraipen eta betearazte arrunteko eginkizunak betetzearen kalterik gabe, kontratuaren arduradunari dagokio lanak gainbegiratu eta ikuskatzea, eta eginkizun hauek izango ditu:

a) Baldintza orokorren 25.2 klausulak jasotzen duen lan-proposamenaren onarpena proposatzea kontratazio-organoari.
b) Prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematea idatziz.
c) Baldintza orokorren 32.1 klausulan ezartzen diren zerbitzu-ziurtagiriak onartzea.
d) Baldintza orokorren 32.2 klausulan prestazioa behar bezala ematen eta jasotzen dela egiaztatzeari buruz ezarritakoak.
e) Gainbegiratzea eta egiaztatzea kontratistak behar bezala betetzen dituela kontratuaren arabera hartu dituen betebeharrak, kontratazio-organoari egon daitezkeen arau-hausteen berri ematea eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zehapenak ezartzeko proposamena egitea.
f) Baldintza orokorren 26. klausulari jarraikiz kontratua gauzatzera bideratu behar izan diren iza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
g) Beharrezkotzat jotako aldaketak proposatzea.
h) Kontratua gauzatzera adskribatutako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eskatzea.
i) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea, egiaztatzeko kontratuaren indarraldi osoan zehar hirugarrenen kaudimenak eta/edo baliabide materialak dituela, kontratua esleitzeko prozeduran parte hartzeko kaudimen eta baliabide horietan oinarritu baitzen.
j) Egiaztatzea kontratistak azpikontratista eta/edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan ezarritakoari jarraikiz.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 46. orrialdea, guztira 103

k) Gauzapena atzeratzen bada, atzerapena kontratistari egozteko modukoa den ala ez adieraziko duen txostena egitea.
l) Baldintza orokorren 35. klausulan ABEEaren osagaien lagapenari eta aldaketari buruz jasotako txostenak egitea.
m) Kontratistari eskatzea akta bidez ziurtatu dezala kontratua amaitu ondoren datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli direla edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu direla.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.3 klausulan jasotako kontratuaren arduradunaren izendapena aldatuko balitz, idatziz eta berehala jakinaraziko zaio kontratistari.

25.- ZERBITZUAK GAUZATZEA.

25.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Zerbitzuak ematean hertsiki beteko da kontratu-dokumentuetan, kontratistaren eskaintzan eta kontratuaren arduradunak kontratua betetzean edo interpretatzean idatziz emandako jarraibideetan jasotakoa.

25.2.- Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala eskatzen bada, kontratistak lanprograma bat aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari, zazpi (7) eguneko epean kontratua formalizatu denetik kontatzen hasita, eta lan-programa horrek barne hartu beharko ditu preskripzio tekniko berezien pleguari dagokion klausulan zehaztutako datu eta informazioak.

Lan-programak Administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritako epeak beteko ditu eta, hala badagokio, baita eskaintzan ezarritakoak ere, eta kontratazio-organoak onartuko du hamabost (15) egun balioduneko epean.

25.3.- Baimenak.

Kontratistari dagokio prestazioa gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala publikoak nola pribatuak, bai eta horiek sortutako gastuak ordaintzea ere.

25.4.- Aseguruak.
Kontratistak nahitaez kontratatu beharko ditu nahitaezko aseguruak, eta kontratatuta mantendu beharko ditu kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezarritakoak, hala badagokio.

25.5. - Lankidetza.

Kontratistak inongo kostu gehigarririk gabe eman beharko dizkio botere esleitzaileari kontratuaren xedea behar bezala gauzatu eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesional

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 47. orrialdea, guztira 103

guztiak, esaterako, azalpen-bilerak, jendaurreko informazioa, etab. Halaber, kontratuaren arduradunak prestazioa gauzatzen den tokirako sarbide askea izango du.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratuaren exekuzioan gerta daitezkeen omisioek, akatsek, metodo desegokiek edota ondorio okerrek botere esleitzaileari edota hirugarrenei eragin diezazkieketen ondorioen erantzule ere.

Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei sortutako kalte eta galeren ordaina eman beharko du kontratistak, SPKLren 196.2 artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

25.7.- Kalte-ordaina, obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan.
Baldin eta, aholkulari-kontratistari egotz dakizkiokeen errakuntza edo ez-egiteengatik, obraren benetako kostuak proiektuan aurreikusitako obra-aurrekontuarekin % 20 baino alde handiagoa ematen badu (hala goitik nola behetik), kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio botere esleitzaileari, SPKLren 315. artikuluan jasotako baremoan oinarrituta.

26.- GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK.

26.1.- **Baliabideak jartzeko konpromisoa.**

Kontratistak, kontratua betetzean, nahitaez jarri behar ditu baliabideak jartzeko konpromisoaren atalean (II.2 ERANSKINA) adierazitako baliabideak, bai eta kontratua kontratudokumentuetan ezarritako baldintza eta epeetan betetzeko beharrezkoak diren guztiak ere.

Adierazitako baliabide materialak aldatzeko, aurretiaz jakinarazi behar zaio kontratuaren arduradunari, aurkeztutako dokumentu ziurtatzaileen bidez egiazta dezan proposatutako baliabideak eskatutako baldintzak betetzen dituela eta baimena eman dezan zazpi (7) egun baliodunen epean. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabide horrek ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste baliabide bat proposatu beharko du.

Adierazitako giza baliabideak klausula honetan adierazitakoaren arabera soilik aldatu ahalko dira. Nolanahi ere, ordezkapenaren ondorioz lan-ingurunean sor daitezkeen egokitzapengorabeherak gainditzeko, ordezkatutako pertsonak eta langile berriak aldi batez kointziditu beharko dute lanean, kostu gehigarririk gabe, behar den denboraz.

Ordezkapena egiteko, prozedura hau eta baldintza hauek beteko dira:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 48. orrialdea, guztira 103

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla medio, ordezkapenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, hamabost (15) eguneko aurrerapenaz –aldi-baterako ezintasuna edo heriotza gertatu denean izan ezik–, eta datu hauek adieraziko ditu:
   - Ordezkatu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezkapenaren arrazoia.

   - Eskatzen diren betekizunak betetzen dituen hautagai baten proposamena eta hori ziurtatzen duten dokumentuak.

Zazpi (7) egun baliodunetan, kontratuaren arduradunak ordezkapena egiteko baimena emango du edo, ondorioztatzen badu hautagai horrek ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste hautagai bat proposa dezake.

b) Botere esleitzaileak eskatutako aldaketa: kontratua betetzeko ordezkapenen bat egitea beharrezkotzat jotzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari eta arrazoiak adieraziko dizkio. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, eskatzen diren betekizunak betetzen dituen gutxienez ordezkari bat proposatuko du eta hori ziurtatzen duten dokumentuak aurkeztuko ditu.

Zazpi (7) egun baliodunetan, kontratuaren arduradunak ordezkapena egiteko baimena emango du edo, ondorioztatzen badu hautagai horrek ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta bere erabakiaren arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak hautagai berri bat proposatu beharko du, aurreko atalean adierazitako terminoetan.

Arau berak aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideekin, bai eta kontratistak lizitazio-fasean beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo baliabideetara jo duen kasuetan ere.

26.2.- **Langileei buruzko arau espezifikoak.**

Kontratua gauzatzera adskribatutako langileak kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegu-emaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratua gauzatzera adskribatu beharreko langileak hautatzea, ezertan eragotzi gabe botere esleitzaileak duen eskumena pleguetan ezarri diren lanbide-gaikuntzako betekizunak betetzen diren egiaztatzeko.
b) Lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egitea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (eskakizun hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago), eta egoeraren berri ematea botere esleitzaileari une oro.
c) Modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzea enplegatzaile orok kontratua gauzatzera adskribatutako langileekiko duten zuzentzeko ahalmena. Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, langileen ordezkapena absentziak daudenean, Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak –dagokionean, kotizazioak eta

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 49. orrialdea, guztira 103

prestazioak ordaintzea barne–, lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplinaahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

d) Bermatzea adskribatutako langileek kontratuaren baldintzen pleguan zehaztutako lanak baino ez dituztela egiten, egin beharreko eginkizunetatik harago jo gabe.
e) Gutxienez koordinatzaile bat izendatzea plantillako langileen artetik, zeinak zeregin hauek bete beharko dituen:

   - Botere esleitzailearen aurrean kontratistaren mintzakide gisa jardutea, batetik kontratistaren eta kontratua gauzatzera adskribatutako langileen eta bestetik botere esleitzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

   - Lana langileen artean banatzea eta zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren aginduak eta laneko jarraibideak ematea.

   - Langileei agindu zaizkien eginkizunak behar bezala gauzatzen direla gainbegiratu eta lanpostura etortzen direla egiaztatzea.

   - Oporraldien araubidea antolatzea.

f) Kontratua gauzatzera adskribatutako lantaldearen osaeran sortzen diren aldaketak, hala aldizkakoak nola iraunkorrak, botere esleitzaileari jakinaraztea.

26.3.- **Lan-baldintzei buruzko informazioa.**

Kontratistak nahitaez eman beharko dizkio kontratuaren arduradunari hurrengo atal hauetan adierazitako datu eta dokumentuak, kasu bakoitzerako adierazitako epe eta baldintzetan:

a) Kontratua gauzatzera adskribatutako langileetako bakoitzaren lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektroniko bidez aurkeztuko dira, VI.3 ERANSKINEAN dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia behar bezala beteta, zazpi (7) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jaso denetik kontatzen hasita.
b) Kontratuaren arduradunak eman diren datuak egiazkoak direla eta kontratistak enplegatzaile den aldetik bere gain hartzen dituen lan-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen dituen datuak: posta elektroniko bidez aurkeztuko dira, eskaneatutako kopia bidez, hamar (10) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jaso denetik kontatzen hasita.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiaren edozein unetan eska dezake informazio hori eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

26.4.- Kontratua gauzatzeko lekua.

Prestazioa botere esleitzaile kontratatzailearen bulegoetan edo instalazio bereizietan emango da. Hori ezinezkoa balitz, langileak nahastea saihesteko, kontratistaren langileak, egoera zehatzengatik ezinezkoa denean izan ezik, ez dira egongo botere esleitzailearen zerbitzurako langileak dauden toki eta lantoki berean eta, gainera, kontratistaren langileak eta baliabideak dagozkien ikur bereizgarrien bidez identifikatuko dira, esaterako, uniforme eta errotuluen bidez.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 50. orrialdea, guztira 103

26.5.- Kaltegabetasun-araua.

Baldin eta, kontratistak klausula honetan ezarrita dauden betebeharrak ez betetzearen ondorioz, botere esleitzailea kontratistarekin batera zenbatekoren bat ordaintzera zigortuko balute, ordaindutako zenbatekoa itzularaziko lioke, dagozkion legezko egintzen bitartez.

26.6.- Langileak subrogatzea.

Lan-araudiari jarraikiz langileak subrogatu beharko balira, kontratua zerbitzua ematen ari zen kontratistaz bestelako eragile ekonomiko bati esleitu zaionean, subrogazioaren eraginpeko langileei ordaindu ez zaizkien soldatak ordaindu beharko ditu kontratistak, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi. Betebehar hori ez da inoiz kontratista berriaren gain eroriko.

Kasu horretan, botere esleitzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

27.- LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO BETEBEHARRAK

27.1.- Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, enpresa kontratista behartuta dago Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean ezarritako ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzera.

Zehazki, kontratistak nahitaez bete behar du 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Era berean, kontratistak nahitaez bete behar ditu martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa, eta azaroaren 8ko 31/1995 Legea, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunari buruzkoa.

Gardentasun-betebeharrei dagokienez, Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren esleipendunak Administrazioari eman behar dio, errekerimendua egin ondoren, arau horretan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia, bai eta udal-esparruan ematen diren arauetan ezarritakoa ere.

Bereziki, lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan, kontratistak bete beharko ditu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen diren arauak ere.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 51. orrialdea, guztira 103

Beraz, kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu, langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko.

Halaber, lan-arriskuak prebenitzeko betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, ondoko betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezartzea.
b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako laneko arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek eskatzen diren neurriak betetzen diren edo ez ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete dela.
c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jarduera planifikatzea.
d) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko V. kapituluan ezarritako kontsulta eta parte-hartzea nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.
f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.
g) Kontratua gauzatzen aritzen diren langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jasotzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza ere (31/1995 Legeko 18. eta 19. artikuluak), lan-arriskuen prebentzio-planeko prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman izana.
h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria edukitzea, beharrezkoak balira.
i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta jantziak ematea, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.
j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatuz eta ordu osagarriak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

27.2.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarreko arauek xedatutakoa bete behar du; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere esleitzaileak.

27.3.- Kontratistak kontratuaren atal bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta botere esleitzaile kontratugileari eman.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 52. orrialdea, guztira 103

28.- **KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.**

Hala kontratistak nola azpikontratistek bete beharko dituzte kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasotakoak.

28.1.-Hizkuntza.

28.1.1.- Botere esleitzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan euskara erabiliko da eskuarki. Kontratua gauzatzeari begira, «eskuarki euskara» erabiltzeak esan nahi du honakoa:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua exekutatzeko lanetan ari direla botere adjudikatzailearekin harremanetan jartzen direnean.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara aukeratzen badute.

28.1.2.- Kontratua gauzatzeak hirugarrenei edo herritarrei zerbitzu eman beharra edo haiekin harremanetan jarri beharra badakar, kontratua gauzatzeko orduan, erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntza erabili behar da enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo harremana izango den pertsonen artean ahoz nahiz idatziz komunikatzeko. Aukerarik ez badago berariaz jasota, kontratua gauzatzeaz arduratuko den kontratistak pertsona fisiko eta juridikoei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, baita fakturak eta trafikoko agiriak ere. Dena den, herritarrak une oro izango du hizkuntza hautatzeko aukera eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzeko eska dezake.

Nolanahi ere, kontratistak behar beste bitarteko material eta giza baliabide bideratu beharko ditu zerbitzuaren hartzaileei harrera, informazioa eta komunikazioa euskaraz eman ahal izateko.

Baldin eta, legea edo hitzarmen kolektibo aplikagarriko dagozkion klausulak aplikatzeagatik, esleipendun berriak azkenduta dagoen kontratuari adskribatutako langileekin subrogatu beharko balu lan-harremanetan, eta langile horiek ez balute kontratuko klausulen pleguetan hizkuntzari buruz ezarritakoa betetzeko hizkuntza-gaitasuna, kontratista berriak nahitaez ordezkatu beharko ditu langile subrogatuak, aipatutako kontratuan eskatzen den euskaraezagutza eta -erabilera betetzen duten pertsonekin.

28.2.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:

28.2.1.- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea.

28.2.2.- Baldintza orokorren 26.3 klausulan ezarritakoa betetzea.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 53. orrialdea, guztira 103

28.2.3.- Kontratuaren gauzatze-aldi osoan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan adierazitako soldata ordaindu beharko du, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ezingo da hori baino soldata baxuagorik ordaindu.

28.2.4.- Kontratua gauzatzearen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

28.3.- Azpikontratisak eta hornitzaileak:

28.3.1. Kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zati bat egitea, bere gain hartuko du botere esleitzailearen aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, baldintza-agiri honen eta kontratuaren baldintzen arabera, baita ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea ere. SPKLren 201 artikulua, bai eta 202. artikuluaren 1. apartatuaren azken paragrafoak aipatzen duen betebeharra ere, datuen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudiari men egiteari buruzkoa.

28.3.2.- Ordainketak egiaztatzea:

- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda xehea igorriko zaio, haiek parte hartzeko kontratua burutu denean, eta horrekin batera baita haietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, betiere ordaintzeko epearekin zerikusi zuzena badute.

- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, aurreko puntuan deskribatutako azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketen ziurtagiriak igortzea, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) legez ezarritako ordainketa-epeen barruan prestazioa ematen amaitu ondoren.

Administrazio Publikoak nahitaez egin beharko ditu egiaztapen-jarduerak.

28.4.- **Datuak babesteko araudiari men egitea.**

- **Datuak babestea:** Sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea dakarten kontratuetan, kontratistak nahitaez egon beharko du Espainiako eta Europar Batasuneko araudien mende, datu pertsonalak babestearen arloan.

Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra da, SPKLren 211. artikuluaren 1. ataleko f) letran ezarritakoari jarraikiz.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

29.1.- Konfidentzialtasuna.

Kontratistak eskuratutako informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak eta kontratua gauzatzeko esleitutako langileek ezin dute daturik beretzat erabili, ez eta hirugarrenei eman ere,

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 54. orrialdea, guztira 103

kontratazio-organoaren baimenik gabe, eta beren eskura dituzten baliabide guztiak jarri behar dituzte informazio ororen izaera konfidentziala eta isilpekoa mantentzeko.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatzea eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta dago datu pertsonaletara sartzea, eta derrigorrezkoa da ezagutzen diren datu pertsonal guztiak isilpean gordetzea.

29.2.- Datu pertsonalen tratamendua.

Eragiketa eta prozedurak, automatizatuak edo ez, datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira, baldin eta, biltzea, grabatzea, kontserbatzea, erabiltzea, aldatzea, blokeatzea eta ezeztatzea ahalbidetzen badute; halaber, pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko edozein informaziori dagozkion jakinarazpen, kontsulta, interkonexio eta transferentzien ondorioz egindako datu-konexioak ere berdin hartuko dira.

- **Kontratuaren ondorioz enpresa esleipendunak datu pertsonalak tratatzen edo atzitzen baditu,** aintzat hartuko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017) hogeita bosgarren xedapen gehigarrian eta honako arau hauetan ezarritakoa:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu datuak enpresa esleipendunak.
2. Tratatu beharreko datuak kontratuaren xedea egiteko bakarrik erabiliko dira, eta ezin izango dira erabili beste xede baterako.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei emango. Hori dela eta, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo horiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez atzipen informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.
4. Enpresa esleipendunak eta kontratuaren xede den prestazioan parte hartzen duten pertsona guztiek Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoan ezarritako konfidentzialtasunbetebeharra bete beharko dute. Betebehar horrek indarrean jarraituko du kontratua azkendu ondoren (dela gauzatu delako, dela suntsiarazi delako).
5. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko, kontratu honen xede diren lanak egiteko tratatuko diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren heinean.
6. **Datu pertsonalen konfidentzialtasunari buruz dagokion kontratua formalizatuko da Udalaren (fitxategiaren arduraduna den aldetik) eta kontratistaren (tratamenduaren arduraduna den aldetik) artean.**

- Erakunde esleipendunaren zerbitzuak berekin ez badakar fitxategiaren arduradunaren datu pertsonalak tratatzerik, berariaz debekatzen da horiek atzitzea; nolanahi ere, erakunde esleipendunaren langileek fitxategien arduradunaren datu pertsonalak istripuz edo puntualki ikusi edo tratatuz gero, sekretua gorde beharko dute nahitaez. Kasu guztietan, erakunde esleipendunak dagozkion neurriak hartuko ditu bere langileek datu pertsonalak, horiek jasotzen dituzten euskarriak eta informazio-sistemen baliabideak atzitzeko dituzten aukerak mugatzeko.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 55. orrialdea, guztira 103

Datuak Babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzekoa) ezarritakoa eta Eranskinean eta Preskripzio Teknikoen Pleguan jasotakoa beteko da, SPKLren 202. artikuluaren 1. ataleko azken paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe.

30.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

30.1.- Lanen jabetza.

Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, botere esleitzailearen jabetzakoak izango dira, eta beraz, hark edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat eman dakion, baldin eta hori behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

Era berean, prestazioa ezarritako epea baino lehenago jasotzeko eska dezake kontratistak, eta botere esleitzaileak erabakiko du eskaera hori onartu ala ez.

30.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabego intelektualaren edo industrialaren arloko eskubide batez babestutako produktuak garatzea eta erabilgarri jartzea xedetzat duten zerbitzu-kontratuek botere esleitzaile kontratatzaile honi laga beharko diote aipatutako eskubide hori.

Ondorioz, Galdakaoko Udalak, jatorrizko ekoizpen-formatuaz gain, lortutako obraren edo produktuaren jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak eskuratzen ditu eta, ondorioz, baita obra edo produktu hori erreproduzitu, banatu, jendaurrean jarri, eraldatu eta horretatik ustiapen ekonomikoa ateratzeko eskubideak ere. Jabetza intelektualeko eskubideok modu esklusiboan edukiko ditu, sinaduraren egunean zeuden ustiapen-modalitate eta/edo euskarri guztiei aplikatuko zaizkie, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean jasotako gehieneko iraupenaz, eta munduko herrialde guztietan izango dira indarrean, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak ez du soilik amaierako lana edo produktua hartzen barne; horrez gain, barne hartzen ditu berori garatzeko egindako lan, zirriborro, eskema, aurretiko dokumentu, fluxu-diagrama eta jabetza intelektual eta industrialaren xede izan daitezkeen bestelako lan guztiak.

Kontratistak informazio zehatza eman beharko dio Galdakaoko Udalari, kontratatutako lanaren emaitzan sartuko diren aurretiko ekarpenen gainean egon daitezkeen erreserba eta hirugarrenen legezko eskubide guztien inguruan. Kontratistaren betebeharra izango da aipatutako eskubide eta erreserben mendeko elementu guztien erabateko erabilgarritasuna bermatzea, eta bere gain hartuko ditu horrek sor ditzakeen kostu guztiak.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 56. orrialdea, guztira 103

Kontratistaren erantzukizun osoa izango da eta haren kargura izango dira eskubide horiei buruzko erreklamazio guztiak, eta erreklamazioak ezartzearen ondorioz Galdakaoko Udalak jasan ditzakeen kalte eta galera guztiak ordainduko ditu, barne hartuta izan ditzakeen ordezkaritzako eta defentsako gastu guztiak.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak sortu eta garatzea denean, aurreko paragrafoan hirugarrenen erreserbei eta eskubideei buruz jasotako informazioak barne hartu beharko du, nahitaez, erabilitako iturri guztien aipamena, horien bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak eta konpilazioan ala exekuzioan erabiltzen diren.

Kontratistak eta prestaketan parte hartu duten pertsonek ezin izango dute erabili obra beren onurarako, ez obraren edo filmazio, testu, marrazki, argazki edo antzekoen atalak hirugarren batzuei eman, ez eta osorik ez partzialki argitaratu ere, Galdakaoko Udalak baimena berariaz eta idatziz eman ezean. Era berean, ez dira saiatuko erregistratzen kontratuaren ondoriozkoen antzekoak edo berdinak diren ezein jabetza industrial eta intelektualeko eskubide, eta kontratua amaitu ondoren ere betebehar hori mantenduko da. Nolanahi ere, betebehar hauek ez betetzeagatik sortzen diren kalte eta galeren erantzulea kontratista izango da.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Galdakaoko Udalarekin lankidetzan aritzeko eta eskatzen dion dokumentazio guztia emateko, Galdakaoko Udalak eta/edo horren aldeko babesak klausula honetan aipatutako eskubide guztiak eskuratu ditzan.

31.- ZEHAPENAK.

Ezertan eragotzi gabe kontratistari akatsak konpontzeko eta kalte eta galerak ordaintzeko legez dagokion betebeharra, eta SPKLan edo 38. klausulan kontratua suntsiarazteko jasotako aukera, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahalko dizkio kontratistari, arrazoi hauek direla medio:

31.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak.

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 13.1. klausulan adierazita egon daitezkeen urraketak: klausula horretan adierazitako zenbatekoak.
b) Guztizko epea edo epe partziala betetzen berandutzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan adierazitako zenbatekoak, kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan beste zenbateko batzuk adierazi ezean.
c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, urraketaren larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.
d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan ezarritakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren % 50 arte.
e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan ezarritakoa ez betetzea: atzeratutako egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 0,01 izango da.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 57. orrialdea, guztira 103

f) Eskaintzaren bidez kontratistak bere gain hartu ondoren, balorazio-irizpidetzat hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, urraketaren larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.
g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.2 klausulan ingurumen-, gizarte- eta lan-arlorako ezarritako betebeharrak ez betetzea (ondorio horietarako, 12.2.2.1 klausula ez dela bete ulertuko da soldaten ordainketan urraketak edo atzerapen errepikatuak egotea, eta hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak baino soldata-baldintza txarragoak aplikatzea, larria eta dolozkoa denean): kontratuaren prezioaren edo aurrekontu mugatzailearen % 0,5 eta % 10 artean, urraketaren larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.
h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plana galdagarria denean: berandututako egun bakoitzeko, euro bat ordainduko da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euroko.

31.2.- Prozedura.

Zigorrak ezartzea kontratazio-organoaren ebazpen bidez erabakiko da eta prozedura horrek jarduketa hauek hartzen ditu barne:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, zeinak hautemandako urraketak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuko duen.
b) Kontratistari entzunaldia egitea bost (5) egun balioduneko tartean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.
c) Kontratazio-organoaren ebazpena.
d) Zenbatekoak biltzea, kontratistari zor zaizkion ordainketa oso edo partzialetan kenkaria aplikatuta, edo, bermea eratu den kasuetan, bermean aplikatuta, aipatutako ordainketetatik kendu ezin denean.

32.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Honako baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

32.1.- Emandako edo gauzatutako zerbitzuen ziurtagiria.

32.1.1.- Kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan ezarrita dagoen erregistroan aurkeztu beharko ditu zerbitzuen ziurtagiriak, eta datu hauek jaso beharko dituzte:

a) Espediente-kodea.
b) Kontratistaren izena edo izen soziala eta IFZ.
c) Emandako edo gauzatutako zerbitzuen zerrenda baloratua (BEZik gabe) –hitzartutako prezioen arabera–.
d) Azpikontratistek emandako prestazioen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, ordainketa-epearekin zuzenean lotutako baldintzak.
e) Zerbitzuak zein alditan eman diren (ziurtagiria partziala denean).

32.1.2.- Epea eta baldintzak.

Aurkezpena epe eta baldintza hauetan egingo da:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 58. orrialdea, guztira 103

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa bakarra ezartzen badu: ziurtagiri oso bat aurkeztuko da kontratua gauzatzen amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan.
b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa partzialak ezartzen baditu: ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira, aipatutako klausulan ezarritako epealdiak amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan.

32.2.- Onespena eta fakturaren erregistroa.

Kontratuaren arduradunak zerbitzuen ziurtagiria onartu behar du erregistratu den egunetik hogeita hamar (30) egunen barruan, eta onarpen-dokumentuaren kopia bat igorriko dio kontratistari egunean bertan, posta elektroniko bidez.

Onarpen-dokumentuaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztuko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan, indarreko araudian faktura elektronikoari buruz ezarritako terminoetan, zerbitzua emateko egunetik hogeita hamar (30) eguneko epean.

32.3.- Ordainketa.

Botere esleitzaileak zerbitzuen ziurtagiria onartu den egunetik hogeita hamar (30) egunen barruan ordaindu beharko du prezioa. Ordaintzeko betebeharrean atzeratzen bada, aurreko paragrafoan adierazitako epetik aurrera berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritzaeragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) ezarritakoarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epea kontatzen hasteko, kontratistak emandako zerbitzuen ziurtagiriak eta fakturak kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkeztu behar izan ditu. Kontratistak ez badu betetzen fakturak administrazioerregistro horretan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar (30) egun igaro arte, botere esleitzaileak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, eta ez badu haren ordainketarik egin.

25/2013 Legearen arabera faktura elektronikoa egin eta igortzera behartuta dauden hornitzaileek Galdakaoko Udalaren Fakturen Sarrera Puntuaren bidez aurkeztu beharko dute, Udalaren webgunean, formatu egituratuan eta ziurtagiri onartu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu bidez sinatuta. Horretara behartuta ez daudenek eta 1.000 euro baino gutxiagoko fakturak dituztenek Fakturen Sarrera Puntuan aurkez ditzakete, bai eta Udalaren Sarreren Erregistro Orokorrean ere. Fakturek azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan eskatutako betekizunak beteko dituzte eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte: fakturaren izena eta data, faktura egitera behartuta dagoenaren eta hartzailearen izen-abizenak

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 59. orrialdea, guztira 103

edo sozietatearen izena eta IFZ, ondasun edo zerbitzuaren deskribapena, zerga-tasa eta tributukuota eta, hala badagokio, transferentzia egiteko banku-kontua.

33.- KONTRATUA ALDATZEA.

33.1.- Baldintzak.

Kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiak direla medio soilik aldatu ahal izango du kontratua, kontratuaren klausula espezifikoen 16. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira aurrekontu-egonkortasuna lortzeko xedea izanik dagokion aurrekontu-ekitaldian gauzatzen direnak.

33.2.- Prozedura.

33.2.1.- Aldaketa bat egitea erabakitzeko prozedurak, kasu guztietan, jarduketa hauek hartzen ditu barne:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehatz mugatuta:

    1) Kontratuaren arduradunaren txostena, zeinak zehaztuko duen zein diren aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak, zein den haien irismen kualitatibo eta kuantitatiboa, zer inguruabar dauden tartean eta inguruabar horien egiaztapen objektiboa.
    2) Kontratazio-organoaren ebazpena, zeinak prozeduraren hasiera erabakitzen duen.
    3) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun baliodunez.
    4) Entzunaldia proiektuaren egileari edo espezifikazio teknikoen idazleari, kontratazioorganotik kanpoko hirugarren batek prestatu baditu, hiru (3) egun baliodunez.
    5) Txosten juridikoa.
    6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.
    7) Aldaketari buruzko iragarkia jartzea kontratatzailearen profilean, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, onartu aurretik jaso diren txosten guztiekin batera.
    8) Aldaketaren iragarkia argitaratzea EBAOn, kontratua erregulazio harmonizatukoa denean (zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasota dagoenetako bat denean izan ezik), eta aldaketa SPKLren 205.2 artikuluaren a) eta b) letretako kasuetako batengatik egin denean.

b) Aleko prezioagatiko segidako traktuko kontratuak, kontratua egitean prestazio-unitateen kopuru osoa zehaztasunez mugatuta ez dutenak:
    1) Kontratuaren arduradunaren txostena, zeinetan hasieran zenbatetsitakoak baino premia handiagoak daudela justifikatuko den eta premion irismen ekonomikoa zehaztuko den.
    2) Kontratazio-organoaren ebazpena, zeinak prozeduraren hasiera erabakitzen duen.
    3) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun baliodunez.
    4) Txosten juridikoa.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 60. orrialdea, guztira 103

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.
6) Aldaketari buruzko iragarkia jartzea kontratatzailearen profilean, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, onartu aurretik jaso diren txosten guztiekin batera.

33.2.2.- Jarraian zehazten diren kasuetan, gainera, jarduketa hauek egin behar dira:

1) Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak bermea egokitu beharko du, ebazpena jakinarazi denetik hamabost (15) egun naturaleko epean.
2) Gobernu Kontseiluak aldaketa egiteko baimena eman beharko du, bi egoera hauek tarteko direnean:
   a. Sektore publikoko kontratuei buruzko araudian kontratu jakin batzuetarako bereziki edo, orokorrean, kategoria jakin batzuetarako ezarritakoa baino iraupen handiagoa duen kontratua bada.
   b. Aldaketak suntsiarazpena ekartzen badu.
3) Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan baldintza jakin batzuk dituzten berariazko aseguru batzuk eskatu badira eta, kontratua aldatu ondoren, baldintza horiek edo kontratuaren iraupena edo betetzeko epea aldatu badira, kontratistak aseguru horren poliza berri bat edo batzuk kontratatu beharko ditu, aurrekoen estaldura eta kapital berdinekin, edo lehendik zegoena edo zeudenak luzatu, halako moldez non aldatutako ezaugarriak eta, hala badagokio, epe gehigarria estaliko baitituzte.
4) Aldaketa hori ez balego Administrazio-klausula partikularren pleguan aurreikusita, Aholku Batzorde Juridikoak txostena egin beharko du, kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 euro edo handiagoa bada eta aldaketak horren % 20ri baino gehiagori eragiten badio. Aldaketa gehiago egitea erabakitzen bada, ehunekoaren aldakuntza kalkulatzeko horiek guztiak hartuko dira kontuan.

33.2.3.- Nolanahi ere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da eta SPKLren 63. eta 207. artikuluei jarraikiz argitaratuko da.

33.3.- Ondorioak.

Klausula honetan ezarritakoaren arabera erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Administrazio-klausula partikularren pleguan aurreikusi ez diren aldaketen kasuan, SPKLren 206. artikuluan jasotakoa beteko da.

34.- AZPIKONTRATATZEA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake, aipatutako klausulan ezarritako mugen barruan eta horretan ezarritakoari jarraikiz.

Kontratistak hirugarrenak kontratatzen baditu kontratua partzialki gauzatzeko, bere gain hartuko du kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa botere esleitzailearen aurrean, plegu hau eta kontratuaren baldintzak hertsiki beteta, barne hartuta SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak, bai eta 202. artikuluaren 1. atalaren

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 61. orrialdea, guztira 103

azken paragrafoan aipatzen den betebeharra ere, zeinaren arabera Espainiako eta Europar Batasuneko araudien mende egongo den datu pertsonalak babestearen arloan.

34.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Baldin eta kontratistak lizitazioaren fasean KAEB inprimakiaren II. atalaren D sekzioa baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den moduan bete badu eta azpikontratazioa hor adierazitako baldintza zehatzetan egin nahi badu: VI.2 ERANSKINEAN dagoen adierazpena bidali beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak gauzatzen hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago, gutxienez.

b) Baldin eta kontratistak lizitazioaren fasean KAEB inprimakiaren II. atalaren D sekzioa baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den moduan bete badu, baina azpikontratazioa KAEB inprimakian adierazitakoez bestelako baldintzetan egin nahi badu, edo ez badu aipatutako atala bete: VI.2 ERANSKINEAN dagoen inprimakia bidali beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak gauzatzen hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago, gutxienez.

34.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordainketak egiteko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Kontratistak azpikontratistarekin edo hornitzailearekin hitzartutako ordainketa-baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko du, eta baldintzok SPKLren 216. artikuluan ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte, baldintza orokorren 28.3 klausulan ezarritakoari jarraikiz eta, gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 32.1.1 klausularen d) letran ezarritakoari jarraiki.

35.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-AREN OSAGAIAK ALDATZEA.

35.1.- KONTRATUA LAGATZEA.

35.1.1.- Kasuak.

Ezertan eragotzi gabe SPKLren 98. artikuluan kontratistaren ondorengotzari buruz eta SPKLren 69.9. artikuluan ABEEaren osaeraren aldaketari buruz ezarritakoa, kontratua kasu hauetan laga ahal izango da:

1. Kontratista kaudimengabeziako egoeran badago, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluarekin bat etorriz, eta oraindik ez badu konkurtsoa deklaratzeko eskatu, baldin eta ez bada kaudimengabekotzat jo beste prozeduraren batean.
2. Kontratista konkurtsoan deklaratu bada, baita likidazio-fasea zabaldu bada edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen dagokion epaitegiari finantzaketa-akordio bat lortzeko edo hitzarmenean aurreratutako proposamen baterako atxikimenduak lortzeko negoziazioetan hasi dela jakinarazi badio ere, konkurtsoen legedian jasotako terminoetan.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 62. orrialdea, guztira 103

3. Kontratista pertsona fisikoa bada eta kontratua amaitu aurretik erretiratzeko asmoa duela adierazi badu.

35.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, lagapenerako baimena eskatzeko. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
   i. Kontratuaren lagapena eskatzeko aukera ematen duen egoera egiaztatzen duen dokumentazioa.

   ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluaren c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoak prozeduraren hasiera erabakitzen duen ebazpena ematea.
3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, zeinetan adieraziko den kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatzeko betekizuna bete behar den ala ez eta, baiezkoa bada, betekizun hori bete den ala ez. Era berean, SPKLren 214. artikuluko 1. atalaren bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla adierazi beharko du.
4. Txosten juridikoa.
5. Kontratistak lagapena formalizatuko duen eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztuko du.
6. Kontratazio organoak lagapena baimentzen duen ebazpena ematea eta kontratistari jakinaraztea.
7. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena baimentzen duena, kontratistaren profilean argitaratzea.
8. Lagapena eskritura publiko bidez formalizatzea.
9. Lagapen-hartzaileak bermea ipintzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak berea formalki eratu arte.

35.1.3.- Baldintzak.

35.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimentzeko baldintza hauek bete behar dira:

SPKLren 214. artikuluaren 2. atalean jasotako betekizunak betetzea.

1. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko eta pertsonalak ez izatea kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria.
2. Lagapenak ez ekartzea merkatuko lehiakortasunaren benetako murrizketarik.

35.1.3.2.- Ezingo da kontratuaren lagapena baimendu kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 63. orrialdea, guztira 103

35.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen lagapena eskritura publiko bidez formalizatuko da.

35.1.3.4.- Lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta lagapenhartzaileak berea formalki eratu arte.

35.2.- ABEE-AREN OSAGAIAK ALDATZEA.

35.2.1.- Baldin eta ABEEaren osagaiak aldatzeak haren osagaiak ugaritzea, murriztea edo ordezkatzea badakar, jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, aldaketarako baimena eskatzeko. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
   i. ABEEaren osaera aldatzeko eskatzea ahalbidetzen duten inguruabarren justifikazioa.
   ii. ABEEak, bere osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimeneko eta sailkapeneko betekizunak betetzen dituela eta hura osatuko duten kide guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzea debekatuta ez dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.
2. Kontratazio-organoak prozeduraren hasiera erabakitzen duen ebazpena ematea.
3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, zeinetan adieraziko den kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 gauzatu dela.
4. Txosten juridikoa.
5. Kontratistak lagapena formalizatuko duen eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztuko du.
6. Kontratazio organoak ABEEaren osaeraren aldaketa baimentzen duen ebazpena ematea eta ABEE kontratistari jakinaraztea.
7. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaeraren aldaketa baimentzen duena, kontratistaren profilean argitaratzea.
8. ABEEa eskritura publiko bidez formalizatzea.
9. ABEEak berme berria ipintzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak aurretiaz jarritako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta berria formalki eratu arte.

35.2.2.- Baldin eta, ABEEa osatzen duten kideetako baten jarduera-adarra bateratzeko, zatitzeko edo transmititzeko eragiketen ondorioz, sozietate xurgatzailea, bateratzearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarra eskuratu duena ez bada ABEEaren kidea, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan adierazitako izapide berberak beteko dira, kontratuaren %20 gutxienez gauzatzeari buruzkoa izan ezik.

35.2.3.- Baldin eta ABEEaren osagai bat edo batzuk konkurtsoan deklaratuko balira, nahiz eta likidazio-fasea zabalduta egon, SPKLren 69.9 artikuluaren c) letran ezarritakoa beteko da, SPKLren 212.5 artikuluak kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren berme gehigarrien prestazioari buruz esandakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, jarduera hauek egingo dira:

1.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 64. orrialdea, guztira 103

2. ABEE kontratistak idatzi bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEaren kide baten edo batzuen konkurtso-egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eta eskabide hauetako bat egingo du:
   i. Kontratua gauzatzen jarraitzea, geratzen diren osagaiekin. Kasu honetan, ABEEak bere osaera berriarekin eskatzen diren kaudimeneko eta sailkapeneko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da.
   ii. Kontratua gauzatzen jarraitzea, ABEEaren hasierako osagaiekin, konkurtsoan deklaratutakoak barne.
3.
4. Baldintza orokorren 35.2.1 klausulako 2 eta 9 bitarteko puntuetan (3.a izan ezik) deskribatutako izapideak egitea. Eta, baldin eta kontratazio-organoak erabakitzen badu ABEEak osagai guztiekin jarraituko duela kontratua gauzatzen, konkurtsoan deklaratutakoak barne, ABEE kontratistak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren berme gehigarriak eman beharko ditu, kontratazio-organoak ebazpenean adierazitakoari jarraikiz.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA.

36.- BETETZEA: ENTREGA, HARRERA ETA LIKIDAZIOA.

36.1.- Entrega egitea eta baldintzak behar bezala bete direla egiaztatzea.

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak preskripzio tekniko berezien pleguan ezarritako zehaztapenei jarraikiz entregatuko dira, baldintza orokorren 8. klausulan adierazitako epeetan.

Preskripzio tekniko berezien pleguan besterik aurreikusi ezean, hau da entregatzeko data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak entregatzen dizkionean kontratuaren arduradunari, preskripzio tekniko berezien pleguan zehaztutako modu eta formatuan.
- Segidako traktuko kontratuetan: kontratuaren iraupenaren epealdi osoa amaitzen den egunean.

Entrega-egunetik kontatzen hasita hamabost (15) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak dagozkion egiaztapenak egingo ditu hitzartutako baldintzak egokiro betetzen direla egiaztatzeko, eta egiaztapen-txosten bat egingo du, ildo hauetako batean:

a) Bete direla ondorioztatzen badu: kontratuaren harrera egitea proposatuko du eta horretarako data emango du –kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan adierazitako epearen barruan– eta txostena kontratistari igorriko dio; espedientea fisikoki egiaztatu behar bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegora ere bidaliko du.

b) Ez direla bete ondorioztatzen badu: hautemandako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu eta beroriek zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena kontratistari

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 65. orrialdea, guztira 103

igorriko dio; horretan, zuzenketa egiteko zein epe duen zehaztuko du eta jakinaraziko dio txostenean jasotako ondorioei idatzizko erreklamazio bat egiteko aukera duela, bost (5) egun baliodunen barruan.

Kontratistak ez badu erreklamaziorik egiten aipatutako epean, jarraibideekin ados dagoela ulertuko da eta hautemandako akatsak zuzendu beharko ditu.

Kontratistak, adierazitako epean, erreklamazioren bat egiten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari bidaliko zaizkio, eta hark ebazpena emango du hamabost (15) egun balioduneko epean.

36.2.- Akatsen zuzenketa.

36.2.1.- Zuzenketak egiteko epea igaro ondoren, kontratuaren arduradunak dagozkion egiaztapenak egingo ditu emandako jarraibideak egokiro betetzen direla egiaztatzeko eta, hamar (10) egun balioduneko epean, beste egiaztapen-txosten bat egingo du:

a) Egokiro bete direla egiaztatzen badu: baldintza orokorren 36.1 klausularen a) atalean adierazitako jarduerak egingo ditu.
b) Ez direla bete ondorioztatzen badu: hautemandako ez-betetzeak eta akatsak identifikatuko ditu eta kontratistari eta kontratazio-organoari bidaliko die egiaztapen-txostena, zigorrak ezartzeko proposamenarekin batera eta, hala badagokio, egoeraren arabera, jarduketa hauetako bat egingo du:

    1) Kontratua suntsiarazteko prozedura abiaraztea bermea konfiskatuta, eta kontratistak eragindako kalte eta galerengatiko ordaina eman beharko dio kontratistari, konfiskatutako bermea gainditzen duen zenbatekoan.
    2) Zuzenketak egiteko epe berria jartzea eta kontratuaren prezioaren edo gehienezko aurrekontu mugatzailearen % 25 arteko zigorra ezartzea.

Azpikontratistak ez baditu akatsak zuzentzen horretarako emandako bigarren epearen barruan, kontratua suntsiarazteko prozedura abiaraziko da bermea konfiskatuta, eta kontratistak eragindako kalte eta galerengatiko ordaina eman beharko dio kontratistari, konfiskatutako bermea gainditzen duen zenbatekoan.

36.2.1.- Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan, SPKLren 315. artikuluari jarraikiz zuzentzen dira akatsak eta hutsuneak.

36.3.- Harrera.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 66. orrialdea, guztira 103

Nolanahi ere, harrera egin arte, kontratista izango da hitzartutako baldintzak egokiro betetzearen erantzule, eta kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena egiteak edo zerbitzu partzialen ziurtagiriak onesteak ez dio salbuespenik eta inolako eskubiderik emango.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatu badu hitzartutako baldintzak egokiro bete direla, kontratuaren harrera egingo da.

Harrera-ekitaldira kontratuaren arduraduna eta kontratistaren ordezkaria joango dira eta, espedientea fisikoki egiaztatu behar bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat ere bai. Kontratuaren arduradunak egin beharko du ekitaldirako deialdia, eta bost (5) egun balioduneko aurrerapenaz bidaliko du. Harrera-ekitaldian dagokion akta egingo da, bikoiztuta, eta bertaratutako guztiek sinatu beharko dute.

36.4.- Likidazioa.

Kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean eta/edo kontratuaren klausula espezifikoetan berariaz jaso denean SPKLren 309.1 artikuluaren bigarren paragrafoan adierazitakoa, harreraren edo adostasunaren akta egin denetik kontatzen hasita hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan, kontratazio-organoak dagokion likidazioa erabakitzeko ebazpena emango du, kontratistari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, ordaindu egingo zaio, baldin eta faktura ez bada harrera-eguna baino geroago aurkeztu.

Kontratistak faktura harrera-eguna baino geroago aurkeztu badu, faktura kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkeztu den egunean hasiko da kontatzen hogeita hamar (30) eguneko epea.

Likidazioko saldoa berandu ordainduz gero, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantzakostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

37.- BERMEALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA.

37.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan ezarritako bermealdian, zeina kontratuaren harrera-egunaren hurrengo egunean hasiko den, kontratistak nahitaez zuzendu beharko ditu, bere kontura, egindako lanek dituzten akatsak, aipatutako epearen barruan egiaztatu eta idatziz jakinarazi badira.

Akats horiek zuzentzeko aipatutako moduan eta epearen barruan eskatuta, kontratistak ez baditu zuzentzen, botere esleitzaileak urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 67. orrialdea, guztira 103

Administrazio Prozedura Erkidearena) 100. artikuluan ezarritako nahitaez betearazteko bideak erabili ahalko ditu.

Bermealdia amaitu eta botere esleitzaileak ez badu zuzenketa erreklamatu dagokion forman eta epean, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik gauzatutako prestazioagatik, ezertan eragotzi gabe SPKLren 314 eta 315. artikuluetan obra-proiektuak egiteaz ezarritakoa.

37.2.- Bermea itzultzea.

37.2.1.- Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan ez bada bermealdirik ezarri, kontratuaren likidaziorako kontratuak barne hartuko du bermea itzultzeko edo ezerezteko agindua.

37.2.2.- Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan bermealdia ezarri bada, epe hori igaro ondoren jarduera hauek egingo dira:

a) Bermealdian ez bada erreklamaziorik egin dagokion forman eta epean, edo, egin arren, ez badira zuzendu: kontratazio-organoak ebazpena emango du, bermea itzultzea edo ezereztea erabakitzeko.

   Ebazpena eman eta kontratistari jakinaraziko zaio bi (2) hilabeteko epean, bermealdia amaitu denetik kontatzen hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dagokion botere esleitzailearen organo baliokideari jakinaraziko zaio.

b) Bermealdiaren barruan dagokion forman eta epean erreklamazioak egin badira eta kontratistak ez baditu zuzendu: kontratuaren arduradunak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, akatsak behar bezala zuzentzeko. Horretarako, epe bat emango da, zeinaren bitartean kontratista izango den egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoen erantzulea, SPKLren 311. artikuluaren 2. atalean deskribatutako terminoetan, eta ez da eskubiderik izango bermealdia luzatzeagatik inongo zenbatekorik jasotzeko.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak horretarako emandako epean, bermea konfiskatuko da.

37.2.3.- Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausulan bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea onartzen bada, baldintza orokorren 37.1 eta 37.2 klausuletan ezarritakoa betez jardungo da. Bermealdia ezarri bada, harrera partzialaren hurrengo egunean hasiko da.

37.2.4.- Kontratua gauzatzeko epea eta bermealdia amaitu ondoren urtebete igarota ez bada harrera-egintza formalik eta likidaziorik izan, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, bermeak itzuli edo ezereztuko dira, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 euro baino txikiagoa bada eta kontratista

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 68. orrialdea, guztira 103

enpresa txiki edo ertain bat bada, SPKLren 11.5 artikuluan jasotakoaren arabera, urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

38.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan, 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan herritarrei zerbitzu emateko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuentzat eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan ezarritakoaz gain, honako hauek ere kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira:

a) Botere esleitzailearen zuzendaritzako eta ikuskaritzako ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraikiz.
b) Kontratistak konfidentzialtasunaren betebeharra ez errespetatzea.

VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA.

39.- GORABEHERAK.

39.1.- Kontratazio-organoaren eskumenak.

Kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu gai hauen inguruko auziak: administraziokontratuen interpretazioa, aldaketa, berori betetzeak sortzen dituen zalantzak, kontratua gauzatzeagatik kontratistari egotz dakiokeen erantzukizunaren adierazpena, kontratuen suntsiarazpena eta ondorioak. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hileko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

39.2.- Prozedura.

Kasu berezietarako plegu honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian ezarritakoa izan ezik, botere esleitzailearen eta kontratistaren artean kontratua gauzatzean eta azkentzean sor daitezkeen gorabehera guztiak aldebiko espediente bidez izapidetuko dira, eta espediente horrek honako jarduera hauek hartuko ditu barne, nahitaez:

a) Botere esleitzailearen proposamena edo kontratistaren eskabidea.
b) Kontratistaren entzunaldia, bost (5) egun baliodunez.
c) Kontratuaren arduradunaren txostena.
d) Hala badagokio, aholkularitza juridikoaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.
e) Esku-hartzea, aurreko epe berean bideratu beharrekoa.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 69. orrialdea, guztira 103

f) Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitua ematea eta kontratistari jakinaraztea.

Interes publikoko arrazoiek justifikatzen ez badute edo gorabeheren izaerak hala eskatzen ez badu, prozedura honen izapideak ez du kontratua eteterik ekarriko.

40.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da organo eskuduna SPKLren 44.1 artikulua jasotako kontratuen inguruan SPKLren 44.2 artikuluan jasotako egintzen aurrean kontratazio-arloko errekurtso berezia ebazteko, bai eta dagozkion behin behineko neurriak hartzeari buruz erabakitzeko ere.

SPKLren 44.1 artikuluan jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei dagokienez emandako egintzei urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) jasotako errekurtso arruntak aplikatu ahal izango zaizkie (112, 121 eta 123 artikuluak).

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 70. orrialdea, guztira 103

ERANSKINA. DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hornitzaileen kudeaketari, lizitazioei eta sektore publikoko proiektuak eta kontratuak gauzatzeko kontrol eta kudeaketari dagokien arloaren barruan, DBEOren 13. artikuluak eskatzen duen informazioa ageri da jarraian:

Tratamenduaren izena	KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA
Tratamenduaren arduraduna	Galdakaoko Udala Helbidea: Kurtzeko plaza, 1 - 48960 Galdakao
Datuak babesteko ordezkaria (harremana)	Datuen Babeserako ordezkaria. Posta elektronikoa: dpd@galdakao.eus
Tratamenduaren xedeak	Udal Ondasun eta Zerbitzu Publikoen kudeaketarako kontratazioa
Tratamenduaren oinarri juridikoa	DBEO: 6.1.b) Interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplika dakiokeen lege-betebehar bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua: • 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
Datuak gordetzeko epea	Datuak gorde ahal izango dira bildutako datuon tratamenduaren helburua betetzeko eta hortik etor daitezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den epean. Ondoren, Ondare Historikoaren legedia aplikatuko litzateke (7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa).
Hartzaileak	Datu pertsonalak honako hauen esku utz daitezke: • Beste administrazio publiko batzuk (legezko betebeharrak betetzen ari badira edo gaian eskumenak badituzte).
Eskubideak baliatzea	Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu arestian aipatu den helbidera idatzi bat bidalita, eta NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita bertan. Interesdunak, halaber, eskubidea du erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.
Datuen jatorria	Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria, Administrazio Publikoak eta Erregistro Publikoak.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 71. orrialdea, guztira 103

AKPAren ERANSKINAK

LABURPENA

I. KONTRATUKO BERARIAZKO KLAUSULA JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

- I.1 ERANSKINA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA: KOSTUAK ETA BESTE GASTU BATZUK

II. A GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA.

- II.1. ERANSKINA. KONTRATAZIORAKO EUROPAKO AGIRI BAKARRA (EKAB)
- II.2. ERANSKINA. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA
- II.3. ERANSKINA. ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA (hala badagokio)
- II.4. ERANSKINA. ABEE FORMALA ERATZEKO KONPROMISOA (hala badagokio)
- II.5. ERANSKINA. ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK
- II.6. ERANSKINA. ESKAINTZA / ESKAINTZA INTEGRATZAILEA AURKEZTEN DUEN SORTA EDO SORTAK: SORTEN KONBINAZIOA (hala badagokio)
- II.7. ERANSKINA. GALDAKAOKO UDALEAN EGINDAKO AITORPEN OSAGARRIA

III. B GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA.

- **PROIEKTU TEKNIKOA (**Ikusi Berariazko Klausulen 22.2.1. klausula: "BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK".

IV. C GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA.

- **IV.1. ERANSKINA.** ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN BESTELAKO IRIZPIDEAK
- **TREBAKUNTZAREN EGIAZTAGIRIAK:** Ikusi Berariazko Klausulen 22.2.2. klausula: "FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK".

V. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA.

- V.1. ERANSKINA. BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENAREN ETA BITARTEKOEN ERABILGARRITASUNA KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN
- V.2. ERANSKINA. SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATUAK EGITEKO DEBEKURIK EZA
- V.3. ERANSKINA. BANKU-ABALAREN EREDUA. ABEEen BANKU-ABALAREN EREDUA.
- V.4. ERANSKINA. KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEEen KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA.
- V.5. ERANSKINA. KAUDIMEN EKONOMIKOAREN ERABILGARRITASUNA

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 72. orrialdea, guztira 103

VI. KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKOA (EXEKUZIO-FASEAN).

- VI.1. ERANSKINA. ZERBITZU-ZIURTAGIRIAREN ONARPENA
- VI.2. ERANSKINA. AZPIKONTRATAZIOA JAKINARAZTEA
- VI.3. ERANSKINA. LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEI BURUZKO ADIERAZPENA.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 73. orrialdea, guztira 103

I.1 ERANSKINA

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA: KOSTUAK ETA BESTE GASTU BATZUK

***6036*/2023** espediente-zenbakiarekin erreferentziatutako kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko justifikazio-memorian kontuan hartutako kostuak eta gastuak: Justifikazio-memorian adierazitakoak.

URTEKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA –HARRETA ZERBITZUA.	
Langile kostua:	15.327,00 € (*)
Material kostua (informatika, tailerretarako materiala eta suntsikorra)	2.500,00€ *(250€ x 10 hilabete)*
Zeharkako kostuak Kudeaketa gastuak, bulego materiala, aseguruak…(%10)	1.782,70 €
Enpresa irabazia (%6)	1.176,58 €
Guztira (BEZ gabe)	20.786,28 €
BEZ (%21)	4.365,12 €
Guztira (BEZ barne)	**25.151,40** €

(*) Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko indarreko Hitzarmen Kolektiboa hartu da erreferentziatzat, psikologo baten (1.A lanbide-taldea) lanaldiaren % 33ko kostua kalkulatzeko. Zuzeneko soldata-kostuak ez dira generoaren arabera bereizten; izan ere, aplikatutako sektoreko hitzarmenean ez da generoagatiko soldata-bereizketatzat hartzen.

URTEKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA- UNITATEKO PREZIOAK.	
Langile kostua:	30,00 € (*)
Zeharkako kostuak Kudeaketa gastuak, bulego materiala, aseguruak…(%10)	3,00 €
Enpresa irabazia (%6)	2,00 €
Guztira (BEZ gabe)	35,00 €
BEZ (%21)	7,35 €
Guztira (BEZ barne)	**42,35** €

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 74. orrialdea, guztira 103

(*)Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko indarreko Hitzarmen Kolektiboa hartu da erreferentziatzat, psikologo baten (1.A lanbide-taldea) kostu ordua kalkulatzeko.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 75. orrialdea, guztira 103

II.1 ERANSKINA.

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)

BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren "Lizitatzaileari Laguntzeko Eskuliburua", informazio gisa baino ez, lizitazio honen kontratatzailearen profilean argitaratuko denaz gain, honako jarraibide hauek ere zehazten dira:

Inprimaki normalizatua behar bezala identifikatutako sei zatitan banatzen da. Zati horietako bakoitzean informazio zehatza eskatzen zaie lizitatzaileei.

I. zatia- kontratazio-prozedurari eta botere edo erakunde esleitzaileari buruzko informazioa: Udalak beteta dator.

II. zatia.- Operadore ekonomikoari buruzko informazioa: EKAB zerbitzu elektronikoan, zati honetako A, B, C eta D ataletako eremuak EZ DIRA balio lehenetsiarekin datoz; **beraz, lizitatzaile bakoitzak eremu bakoitza egokitu beharko du benetan dagokionera.**

A. **Operadore ekonomikoari buruzko informazioa:** dagozkion laukitxoak betetzea. Operadorea baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda batean inskribatuta dagoen edo ziurtagiri baliokidea duen aipatzen du, eta kontuan izan behar da Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialekoak (ROLECE) edo Euskal Autonomia Erkidegokoak direla.
B. **Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa:** dagozkion laukitxoak betetzea.
C. **Beste erakunde batzuen gaitasunari buruzko informazioa:** prozedura honetan eskatzen den kaudimena egiaztatzeko lizitatzailea ez den beste erakunde batzuen gaitasunera jotzen bada soilik betetzea. Kasu horietan, EKAB bat eman beharko da horietako bakoitzeko.
D. **Operadore ekonomikoa gaitasunean oinarritzen ez den azpikontratistei buruzko informazioa:** bete egin behar da, Klausula espezifikoen 14. puntuan hala aurreikusten bada, lizitatzaileak azpikontratazio hori aurreikusten badu. Erantzuna baiezkoa bada, eta datu hori ezagutzen den heinean, zerrendatu azpikontratistak edo aurreikusitako kategoriak.

III. zatia.- Baztertzeko arrazoiak: EKAB zerbitzu elektronikoan, zati honetako A, B, C eta D ataletako eremuak EZ DIRA lehenetsita agertzen, eta baliagarri da lizitatzaileak egiaztatu ahal izatea ez dagoela kontratatzeko debeku-kausan edo, baten batean egonez gero, salbuespena justifika dezakeela.

III. zatiko D atalean xedatutakoaren ondorioetarako, **baztertzeko arrazoi nazionaltzat** hartuko dira honako hauek (d letra): SPKL, 71.1):

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 76. orrialdea, guztira 103

• Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen % 2ko erreserba-kuota ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikulua.

• Berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikulua, **50 langiletik** gorako operadore ekonomikoen kasuan.

IV. zatia- Hautaketa-irizpideak: Nahikoa izango da *a* letra betetzea: *hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra*, eta adieraziko du betetzen dituela hautaketa-irizpide guztiak, baldin eta lizitatzaileak betetzen baditu, eta kontratua esleitu aurretik esleipendun izateko proposamena egiten duenak egiaztatu ahal izango du. ABEEren kasuan, enpresa kideren batek horiek guztiak betetzen ez baditu, A (berariazko klausuletan enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada), B eta C letrak beteko ditu, eta berariazko klausuletan hala eskatzen bada, D letra.

EKAB agiriaren II-C atalean adierazten bada lizitatzailea beste erakunde batzuek klausula espezifikoetan eskatzen diren hautaketa-irizpideak (hau da, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala) betetzeko duten gaitasunean oinarritzen dela, bai lizitatzaileak, bai kaudimena oinarri duen enpresak, dagozkien EKAB ataletan, dagozkien atalak beteko dituzte.

V. zatia- Kualifikatutako hautagaien kopurua murriztea: ez da beharrezkoa betetzea.

VI. Zatia- Azken adierazpenak: bete.

EKAB agiria aurkeztu behar da, horretarako ahalmena duen enpresaren ordezkariak sinatuta.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 77. orrialdea, guztira 103

II.2 ERANSKINA.
GIZA BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz (IFZ: ……), ***6036/2023*** zenbakiko espedienteari dagokionez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Kontratua gauzatzera adskribatu beharreko baliabideei dagokienez:

a) **Konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzera adskribatzeko kontratuaren klausula espezifikoen 21.6 klausulan jasotako baliabideak**.

Kontratua gauzatuko duten pertsonek honako hauek izango dituzte:

- Psikologian lizentziaduna edo unibertsitate-gradua, eta 2 urteko esperientzia espezifikoa duena aholkularitza eta arreta psikologikorako zerbitzuetan.
- Egoitza lurralde nazionalean duten Psikologiako Elkargo Profesionalen batean elkargokide izatea.
- Sexologiari buruzko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Feminismoaren inguruko prestakuntza espezifikoa, gutxienez 50 ordukoa.
- Euskarazko C1 ziurtagiria edo baliokidea (Europako Esparru Bateratuaren araberako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien arteko Baliokidetzaren arabera).

b) Konpromisoa hartzen dut, esleipendun izendatutako lizitatzailea izanez gero, kontratuaren klausula espezifikoen Baliabideak Adskribatzeko Konpromisoaren 21.6 atalean adierazitako baliabideak ditudala egiaztatzeko dokumentazioa emateko, SPKLren 150.2 artikuluak zehazten duen epean.

Lekua eta data:.....
Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 78. orrialdea, guztira 103

II.3 ERANSKINA.

ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz (IFZ: ……), ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

..... gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, bere ordezkatuaren izenean, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusia dutelako, konfidentzialtzat jotzen dira ondoren aipatzen diren eskaintzako dokumentu, informazio eta alderdiak:

1.- ……
2.- ……..
3.- ……..
……

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauetan oinarrituta justifikatzen da:

1.- ……
2.- ……..
3.- ……..
……

Lekua eta data:.....
Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 79. orrialdea, guztira 103

II.4 ERANSKINA.
ABEE-A FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz.

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

…… zenbakiko espedienteari dagokionez,

1.- Konpromisoa hartzen dute aldi baterako enpresa-elkarte bat formalki eratzeko. Hurrenez hurren, hauek izango dira bakoitzaren partaidetzak: % ..... eta % .....

2.- ..... jauna/andrea izendatzen dute elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, eta hark ahalorde nahikoak izango ditu kontratuak sorraraziko dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte.

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 80. orrialdea, guztira 103

II.5 ERANSKINA.

ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz (IFZ: ……), ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Merkataritza Kodearen 42.1. artikuluarekin bat etorriz, ordezkatzen duen enpresak enpresa talde bat osatzen du (**bai/ez**): ……. Eta lizitazio honetan parte hartzen duten enpresak honako hauek direla:

Izen soziala IFZ

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 81. orrialdea, guztira 103

II.6 ERANSKINA. *(Loteak badaude baino ez)*

ESKAINTZA ZEIN LOTETARAKO AURKEZTEN DUEN /
ESKAINTZA INTEGRATZAILEA: LOTEEN KONBINAZIOA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [operadore ekonomikoa] ordezkatuz (IFZ: ……), ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1.- **Lote hauetarako aurkezten du eskaintza**: …….

2.- Lote-konbinazio honetarako aurkezten du eskaintza integratzailea: ……

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Balioztatze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 82. orrialdea, guztira 103

II.7. ERANSKINA

GALDAKAOKO UDALEAN EGINDAKO AITORPEN OSAGARRIA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo (lizitatzailea)…….. ordezkatuz (IFZ: ……).

6036/2023 espediente-zenbakia duen kontratua adjudikatzeko prozedurari dagokionez

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

1.- Erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen duenak eskaintza aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo enpresaren ordezkaritza du.

2.- Pertsona, erakunde edo enpresa horrek kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko egokia du, edo, hala badagokio, dagokion sailkapena.

3.- Pertsona, erakunde edo enpresa horrek gaikuntza du, baldintza-agirietan eskatzen den enpresa- edo lanbide-gaikuntzari dagokionez, eta gaikuntzaren egiaztagiri honi erantsi zaio.

4.- Pertsona, entitate edo enpresa horrek baditu kontratuaren xede den jardueran aritzeko behar diren baimenak.

5.- Jarraian adierazten direnek ez dute Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debeku edo bateraezintasunik, artikulu horretan aurreikusitako moduan eta baldintzetan: behean sinatzen duen pertsonak; hark ordezkatzen duen pertsonak, erakundeak edo enpresak; horien administrazio eta ordezkaritzaz arduratzeko ahalmena duten pertsonak; hala badagokio, gobernatzen dituzten pertsonengatik edo beste inguruabar batzuengatik, sektore horretako beste enpresa batzuen jarraipena direla edo, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bidez, haietatik eratortzen direla uste den enpresak.

6.- Lizitazio honetarako eskatzen den kaudimena egiaztatzeko, erakunde honen ahalmenak eta bitartekoak hartuko dira oinarri *(*)*:
……

(*) OHARRA: beharrezko kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak erabiltzen baditu, eta ez badu haiekin ABEEan lehiatzen, beharrezko baliabideak izango dituela frogatuko du; horretarako, erakunde horiek sinatutako idatzizko konpromisoa aurkeztuko du (V.1 eranskinean agertzen den ereduaren arabera) esleipendun hautatzen bada.

7.- Atzerriko operadore ekonomikoa bada eta kontratua Espainian egikarituko bada, adierazten du Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diola.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 83. orrialdea, guztira 103

Halaber, **HAU ADIERAZTEN DU**:

8.- Berak ordezkatzen duen enpresak hitz ematen du kontratua gauzatzen duen bitartean langileen soldata-baldintzak beteko dituela. Baldintza horiek ez dira inolaz ere izango **hitzarmen kolektibo** honetan ezarritakoa baino txikiagoak:…… (Aldizkari Ofizial honetan argitaratua:……)

☐ EZ dagokio

9.- Ordezkatzen duen enpresak langile hauek dituela: (*Markatu dagokion laukia)*

☐ 50 langile baino gutxiago

☐ 50 langile edo gehiago eta (*Markatu dagokion laukia*):

☐ Betebehar hau betetzen du: haien artean gutxienez % 2 desgaitasuna duten langileak izatea. Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarrita dago hori (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak).

☐ Apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak betetzen ditu; errege-dekretu horren bidez, desgaitasuna duten langileen aldeko erreserba-kuota betetzea arautzen da, salbuespenez.

10.- Ordezkatzen duen enpresak lan- eta gizarte-arloan indarrean dauden xedapenak betetzen ditu.

11.- **Berdintasun-planari dagokionez**, 50 langile edo gehiagoko enpresek berdintasun-plana izan behar dute, bai eta lan-agintaritzak zehapena ezarri dielako behartuta dauden enpresek ere, edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak hala ezartzen badu (3/2007 Lege Organikoaren 45. art.; martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 45. art.):

☐Bai, betetzen du berdintasun-plana izateko betebeharra*.

☐Ez dago berdintasun-plana izatera behartuta.

*Kasu honetan, baimena ematen dut Administrazioak dagokion Berdintasun Plana kontsultatzeko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan: ☐bai / ☐ez.

12.- Delitu edo zigorrengatiko zehapenari dagokionez: Ez da zigortu emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso larrien ondoriozko delitu edo zehapen irmoengatik.

13.- Exekuzio-faseari dagokionez, honako hau adierazten dut:

☐ EZ ditu azpikontratatuko kontratuaren xede diren prestazioak.

☐ BAI, kontratuaren xede diren prestazio hauek azpikontratatuko ditu:

……

……

….

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 84. orrialdea, guztira 103

14.- Datuen babesari dagokionez, Espainiako eta Europar Batasuneko araudien menpe jartzen dela (baldintza-agirian adierazten denaren arabera). Era berean, kontratistak kontratua egikaritzeko behar dituen datu pertsonalak tratatzeari dagokionez, eta 14/2019 LegEDaren 5.5 artikulua betez, hau adierazten du: (*adierazi dagokiona*):

☐ BAI, haiei lotutako zerbitzari edo zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusi du.

Hori egiteko agindua jasoko duen azpikontratistaren izena edo enpresa-profila hau da: ……

☐EZ du aurreikusi haiei lotutako zerbitzari edo zerbitzuak azpikontratatzea.

15.- **BAIMENA** ematen du:

☐ Galdakaoko Udalak, dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, hau kontsulta dezan:

- **EJZren alta eta epigrafeak**

16.- Adierazten du mota guztietako errekerimenduetan, **komunikazioetan eta jakinarazpenetan** erabili beharreko datuak hauek direla, Legeak ezarritako ondorio juridikoekin, eta **6036/2023 espediente-zenbakia** duen kontratua esleitzeko prozeduran:

Harremanetarako pertsona: ……..
Egoitza soziala: ……..
P.K……Udalerria……
Telefonoa …… **harremanetarako posta elektronikoa**……

.....(e)n, 20.....(e)ko .....ren .....(e)an.
Sinadura:

Oharrak:
Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da ABEEko kide bakoitzeko, eta II.4 eranskinean aipatzen den konpromisoa gehituko da.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 85. orrialdea, guztira 103

Galdakaoko Udala

II.8 ERANSKINA

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Nik, ……., bere izenean edo (eragile ekonomikoaren izenean edo (operadore ekonomikoaren izenean) izenean, (IFZ duen), ……zk.ko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

Jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egiteko datuak honako hauek direla:

a) Hartzailea izango den pertsona: Hartzailea: ().

b) Sartzeko erabiliko den ziurtagiri-mota:
Enpresa-ziurtagiria.
Ahalordedun-ziurtagiria.

c) Abisurako helbide elektronikoa: ().

d) Jakinarazpena edo komunikazioa zein hizkuntzatan jaso nahi duzun:
☐Euskera.
☐Gaztelania.

Lekua eta data:……
Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 86. orrialdea, guztira 103

IV.1. ERANSKINA.

ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN BESTELAKO IRIZPIDEAK

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo (lizitatzailea)…….. ordezkatuz (IFZ: ……); ***6036/2023*** espedienteari dagokionez

ADIERAZTEN DU:

I.- Honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kontuan hartu ditu eskaintza egitean: fiskalitatea, ingurumena babestea, enplegua babestea, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra ere.

II.- Konpromisoa hartzen du kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak administrazio-klausula partikularren agirian, baldintza teknikoen agirian eta, hala badagokio, dokumentazio osagarrian ezarritako baldintzen arabera gauzatzeko.

III.- Ordezkatzen duen enpresak indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu, enpresa ireki, instalatu eta jardunean jartzeari dagokionez.

IV.- ZERBITZU hauek jarraian adierazten diren **PREZIOEN** truke emateko konpromisoa hartzen dut; prezioaren barruan kontzeptu guztiak sartu behar dira, baita zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-arloko ariel ere, eta kontratistaren etekin industriala:

ESKAINITAKO PREZIOA. ARRETA-ZERBITZUA: .....euro/**URTEA**, gehi..... euro (% 21eko BEZari dagozkionak). = GUZTIRA..... euro/**URTEA.**
Oharra: Arreta-zerbitzurako eskainitako prezioak ezin du gainditu urteko 20.786,28 €-ko lizitazio-tasa (BEZik gabe)
ESKAINITAKO PREZIOA. ORDU-POLTSA: ORUDAREN PREZIOA:.....euro/**ORDUA**, gehi..... euro (% 21eko BEZari dagozkionak). = GUZTIRA..... euro/**ORDUA.** ***Oharra: Ordu-poltsarako eskainitako orduko prezioak ezin du gainditu orduko 35,00 €-ko lizitazio-tasa (BEZik gabe)***

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 87. orrialdea, guztira 103

V.- A**utomatikoki edo formulak aplikatuz balora daitezkeen beste esleipen-irizpide batzuen arabera** (baldintza-agiri honetako **klausula espezifikoen 22.2.2 atalean ezarri dira**), aurkeztutako eskaintzan hau eskaintzeko konpromisoa hartzen du:

KONTRATUARI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA HANDIENA:

Kontratua betetzeko atxikita dagoen langileak eskatzen den nahitaezko prestakuntza du, hots, 50 orduko prestakuntza genero- edo feminismo-arloan eta 50 ordukoa sexologia-arloan.

Eta, gainera, honako prestakuntza osagarri hau du:

Kontratuari atxikitako pertsonaren izen-abizenak:……

- **Generoari edo feminismoari buruz egin dituen prestakuntza-ikastaroak**:

-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……

- **Sexualitateari buruz egin dituen prestakuntza-ikastaroak:**

-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……
-……Orduak:……

*OHARRA: Giza baliabideen zerrendarekin batera **ikastaroetara joan izanaren ziurtagiri GUZTIAK aurkeztu behar dira, horiek baloratzeko. Ziurtagirietan, ikastaroaren iraupena (ORDUAK) adierazi behar dira; BAI ESKATZEN DEN GUTXIENEKO PRESTAKUNTZARI DAGOKIONEZ, BAI BALORATZEN DEN GAINERAKO PRESTAKUNTZARI DAGOKIONEZ.***

……(e)n, 20……(e)ko ……ren ……(e)an.

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 88. orrialdea, guztira 103

V.1 ERANSKINA.

KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK BALIATZEA

ALDE BATETIK, …… jaunak/andreak (NAN:……), bere izenean edo [lizitatzailea] ordezkatuz (IFZ: ……; sozietatearen egoitza: ……),

ETA BESTETIK, …… jaunak/andreak (NAN:……), bere izenean edo [beste entitate bat] ordezkatuz (IFZ: ……; sozietatearen egoitza: ……),

ADIERAZTEN DUGU:

I.- SPKLren 75. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, ...[lizitatzailea] .....[hirugarren entitatea](r)en kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu da .....[helburua] xede duen ..... ([espediente-zenbakia]) kontratuaren esleipen-prozeduran parte hartzeko.

II.- .....[hirugarren entitatea] ez dago sektore publikoarekin kontratatzeko debeku-egoeran.

III.- Hauek dira .....[hirugarren entitatea](e)k .....[lizitatzailea](r)en esku jartzen dituen kaudimena eta/edo baliabideak:

- …
- …

IV.- Kaudimen eta/edo baliabide horiek ..... [lizitatzailea](r)en esku egongo dira kontratua indarrean dagoen bitartean.

V.- .....[hirugarren entitatea](e)k emango dituen zerbitzuak eman ahal izateko, nahitaez izan behar dira kontratuaren klausula espezifikoen 21.2. klausulan eskatzen diren ikasketa-tituluak eta/edo titulu profesionalak eta/edo lanbide-esperientzia.

VI.- Kontratuaren arduradunak eskatutako dokumentazio gehigarria aurkeztuko du ..... [lizitatzailea](e)k, hark egokitzat jotzen duenean adierazpen honetan azaltzen dena benetakoa dela egiaztatzeko, errekerimendua betetzeko eman zaion epean.

Lekua eta data:.....

Sinadura: Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 89. orrialdea, guztira 103

(lizitatzailea) (hirugarren erakundea)

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 90. orrialdea, guztira 103

V.2 ERANSKINA.

SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [lizitatzailea] ordezkatuz (IFZ: ……), ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen dudan enpresa, bertako administratzaileak eta ordezkariak, ni neu eta, hala badagokio, zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren ondorioz beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazio izan daitezkeela ondorioztatu daitekeen enpresak ere ez gaude kontratatzeko inolako debeku- eta bateraezintasun-egoeratan; hau da, ez gaude Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako egoeren artean, artikulu horretan bertan aurreikusitako baldintzetan.

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 91. orrialdea, guztira 103

V.3 ERANSKINA.

BANKU-ABALAREN EREDUA

[Kreditu-entitatearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena] entitateak (IFZ: ……; jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea: [kalea/plaza/etorbidea, posta-kodea, udalerria]) eta haren izenean [ahaldunen izen-abizenak] ahaldunek, behar besteko ahalordea duenez egintza honetan behartzeko, dokumentu honen beheko aldean azaltzen denaren arabera ahalordeak askiestearen ondorioz,

ABALA EMATEN DIO

[Abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena](r)i (IFZ: ……), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 107. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan jasota dauden betebeharrei erantzuteko [kontratuaren xedea eta espediente-zenbakia] kontratuari dagokionez, Galdakaoko Udalaren aurrean (IFZ: P4804400B), behin betiko berme gisa; zenbatekoa: [letraz eta zenbakiz].

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 56.2. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen dituela. Abal hau era solidarioan emango da obligaziodun nagusiari dagokionez, eta berariaz egin beharko zaio uko eskusio-onurari; halaber, konpromisoa hartuko da Galdakaoko Udalaren Diruzaintzaren lehen errekerimendua jasotzean ordaintzeko, Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Legean eta hori garatzeko arauetan aurreikusitako baldintzei jarraituz.

Abal hau indarrean egongo da Galdakaoko Udalak edo haren izenean legez horretarako gaituta dagoen norbaitek ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean eta lege osagarrietan ezarrita dagoenaren arabera.

(lekua eta eguna)

(entitatearen izen soziala)

(ahaldunen sinadura)

Probintzia; data; zenbakia edo kodea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 92. orrialdea, guztira 103

BANKU-ABALAREN EREDUA

ABEE

[Kreditu-entitatearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena] entitateak (IFZ: ……; jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea: [kalea/plaza/etorbidea, posta-kodea, udalerria]) eta haren izenean [ahaldunen izen-abizenak] ahaldunek, behar besteko ahalordea duenez egintza honetan behartzeko, dokumentu honen beheko aldean azaltzen denaren arabera ahalordeak askiestearen ondorioz,

ABALA EMATEN DIO

[1. abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena](r)i (IFZ: ……) eta [2. abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena](r)i (IFZ: ……) BATERA eta MODU SOLIDARIOAN, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 107. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan jasota dauden betebeharrei erantzuteko [kontratuaren xedea eta espediente-zenbakia] kontratuari dagokionez, Galdakaoko Udalaren aurrean (IFZ: P4804400B), behin betiko berme gisa; zenbatekoa: [letraz eta zenbakiz].

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 56.2. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen dituela. Abal hau era solidarioan emango da obligaziodun nagusiari dagokionez, eta berariaz egin beharko zaio uko eskusio-onurari; halaber, konpromisoa hartuko da Galdakaoko Udalaren lehen errekerimendua jasotzean ordaintzeko, Administrazio Publikoen Kontratuen Legean eta hori garatzeko arauetan aurreikusitako baldintzei jarraituz.

Abal hau indarrean egongo da Galdakaoko Udalak edo haren izenean legez horretarako gaituta dagoen norbaitek ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean eta lege osagarrietan ezarrita dagoenaren arabera.

(lekua eta eguna)

(entitatearen izen soziala)

(ahaldunen sinadura)

Probintzia; data; zenbakia edo kodea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 93. orrialdea, guztira 103

V.4 ERANSKINA.

KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA

[Erakunde aseguratzailearen izen soziala] entitateak, aurrerantzean aseguratzaileak (jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea: ……; IFZ: ……), [ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak] jaunak/andreak behar bezala ordezkatuta, behar besteko ahalordea duenez egintza honetan behartzeko, dokumentu honen beheko aldean agertzen den ordezkaritzan egiaztatu denez,

ASEGURATZEN DU:

[Aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena] (IFZ: ……), aseguru-hartzailea den aldetik, [kontratuaren klausula espezifikoen 19.1. klausulako botere esleitzailea](r)en aurrean (IFZ: [kontratuaren klausula espezifikoen 8.5. klausulan jasotako IFZ]), aurrerantzean aseguratua, gehienez [letraz zenbakiz] euroko zenbatekoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legean, lege hori garatzen duen araudian eta [kontratuaren xedea] kontratua eraentzen duen administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritako baldintzen arabera, behin betiko berme gisa, aurretik aipatutako arau eta gainerako administrazio-baldintzetatik aseguratuarentzat ondoriozta daitezkeen obligazioei, zigorrei eta bestelako gastuei erantzuteko.

Aseguratzaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 57.1. artikuluan exijitutako eskakizunak betetzen dituela.

Prima ordaintzen ez bada —dela bakarra, lehenengoa edo hurrengoak— aseguratuak ez du inolako eskubiderik izango kontratua suntsiarazteko, eta kontratua ez da azkenduko, aseguratzailearen estaldura ez da etengo eta hura ez da bere betebeharretik askatuko, aseguratzailea bada bermea ordaindu behar duena.

Aseguratzaileak ezingo ditu asegurudunaren aurka baliatu aseguru-hartzailearen aurka legozkiokeen salbuespenak.

Aseguratzaileak konpromisoa hartzen du Galdakaoko Udalaren lehen errekerimendua jasotzean kalte-ordaina emateko aseguratuari, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako baldintzetan.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da [kontratuaren klausula espezifikoen 19.1. klausulako botere esleitzailea](e)k edo haren izenean legez horretarako gaituta dagoen norbaitek ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarrita dagoenaren arabera.

Lekua eta data:.....

Sinadura: Aseguratzailea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/es/Publico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 94. orrialdea, guztira 103

(lekua eta eguna)

(ahaldunen sinadura)

(Aseguratzailea)

Probintzia Data Zenbakia edo kode

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 95. orrialdea, guztira 103

KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA

ABEE

[Erakunde aseguratzailearen izen soziala] entitateak, aurrerantzean aseguratzaileak (jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea: ……; IFZ: ……), [ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak] jaunak/andreak behar bezala ordezkatuta, behar besteko ahalordea duenez egintza honetan behartzeko, dokumentu honen beheko aldean agertzen den ordezkaritzan egiaztatu denez,

ASEGURATZEN DU:

[Aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena] (IFZ: ……), aseguru-hartzailea den aldetik, BATERA ETA MODU SOLIDARIOAN, [kontratuaren klausula espezifikoen 19.1. klausulako botere esleitzailea](r)en aurrean (IFZ: [kontratuaren klausula espezifikoen 8.5. klausulan jasotako IFZ]), aurrerantzean aseguratua, gehienez [letraz zenbakiz] euroko zenbatekoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legean, lege hori garatzen duen araudian eta [kontratuaren xedea] kontratua eraentzen duen administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritako baldintzen arabera, behin betiko berme gisa, aurretik aipatutako arau eta gainerako administrazio-baldintzetatik aseguratuarentzat ondoriozta daitezkeen obligazioei, zigorrei eta bestelako gastuei erantzuteko.

Aseguratzaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 57.1. artikuluan exijitutako eskakizunak betetzen dituela.

Prima ordaintzen ez bada —dela bakarra, lehenengoa edo hurrengoak— aseguratuak ez du inolako eskubiderik izango kontratua suntsiarazteko, eta kontratua ez da azkenduko, aseguratzailearen estaldura ez da etengo eta hura ez da bere betebeharretik askatuko, aseguratzailea bada bermea ordaindu behar duena.

Aseguratzaileak ezingo ditu asegurudunaren aurka baliatu aseguru-hartzailearen aurka legozkiokeen salbuespenak.

Aseguratzaileak konpromisoa hartzen du Galdakaoko Udalaren lehen errekerimendua jasotzean kalte-ordaina emateko aseguratuari, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako baldintzetan.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da Galdakaoko Udalak edo haren izenean legez horretarako gaituta dagoen norbaitek ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarrita dagoenaren arabera.

Lekua eta data:.....

Sinadura: Aseguratzailea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 96. orrialdea, guztira 103

(lekua eta eguna)

(ahaldunen sinadura)

(Aseguratzailea)

Probintzia	Data	Zenbakia edo kodea

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 97. orrialdea, guztira 103

V.5 ERANSKINA.

ERREGISTROETAN IZENA EMANDA EZ DAUDEN LIZITATZAILEEK KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA IZATEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [lizitatzailea] ordezkatuz (IFZ: ……; helbide soziala:.....), **……** zenbakiko espedienteari dagokionez,

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DU HONAKO HAU:

1. Ez du urteko kontuak ezein erregistro ofizialetan aurkezteko obligazioa, hauetako bat Delako:

banako enpresaburua

onura publikotzat ez jotako elkartea

beste bat (zehaztu) ……..

2. Urteko kontuak erregistroren batean aurkezteko obligazioa du, baina ez du egin, honako baliozko arrazoi hau dela-eta:

……
……

3. Nire kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen dut eta, horretarako, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako hauek ere aurkezten ditut: balio erantsiaren zergaren 303 edo 390 ereduak edo baliokidea, sozietateen gaineko zergaren 200 eredua edo baliokidea, edo hori egiaztatzea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko, aurreko puntuetan adierazitako arrazoiak direla-eta.

ATXIKITA DAGOEN DOKUMENTAZIOA	EKITALDIA	URTEKO NEGOZIO-BOLUMENA (BEZik gabe)

Eta jasota gera dadin adierazitako lizitaziorako behar den kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko ondorioetarako, adierazpen hau sinatzen du.

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 98. orrialdea, guztira 103

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 99. orrialdea, guztira 103

VI.1 ERANSKINA.

ZERBITZUEN ZIURTAGIRIA ONESTEA

…… jaunak/andreak, …… xede duen kontratuaren (espediente-zenbakia: ……) arduradunak,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

I.- Erreferentziako kontratuari dagokionez, administrazio-klausula partikularren pleguko klausula espezifikoen 19.6.2. klausulan adierazita dagoen erregistroan sartu da emandako zerbitzuen ziurtagiria, …… [kontratista](e)k aurkeztuta.

II.- .....[kontratista](e)k kontratuaren xede diren lanak egin ditu / zerbitzu horiek eman ditu, preskripzio tekniko partikularren pleguan eta administrazio-klausula partikularren pleguan ezarritakoaren arabera, honako epealdi honetan: ……

III.- Aurreko lerrokadan azaldu dena oinarri hartuta, onetsi egiten dut emandako zerbitzuen ziurtagiria eta, sinatu dudan egunean, kopia bat bidali diot posta elektronikoz .....[kontratista](e)ri, administrazio-klausula partikularren pleguko baldintza orokorren 32.2. klausulan xedatutako ondorioak izan ditzan.

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 100. orrialdea, guztira 103

VI.2 ERANSKINA.

AZPIKONTRATAZIOA KOMUNIKATZEA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo [kontratista] ordezkatuz (IFZ: ……),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

……/…. espediente-zenbakia duen kontratua gauzatzeko prozedurari dagokionez,

I.- .....[azpikontratista](r)ekin itundu du (IFZ: ……; helbidea: ……; telefono-zk.: ……; legezko ordezkaria: ……) jarraian adieraziko diren lanak egitea. Hauek dira lanok egiteko baldintzak:

- Lanak:
- Lanen prezioa:
- Prezioa ordaintzeko baldintzak:
- Lanak egiten hasteko eguna:

II.- Egiaztatu dut azpikontratistak bete egiten dituela SPKLren 215. artikuluan ezarrita dauden gaitasun-betekizunak, eta ez dagoela kontratatzeko desgaituta, eta, era berean, konpromisoa hartzen duela hori guztia egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko gehienez bost (5) egun balioduneko epean, komunikazio hau jasotzen duenetik aurrera.

III.- Azpikontratazio honen berri eman diet langileen ordezkariei.

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 101. orrialdea, guztira 103

VI.3 ERANSKINA.

LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEI BURUZKO ADIERAZPENA

…… jaunak/andreak (NAN: ……), bere izenean edo .....[kontratista] ordezkatuz,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Erantsitako taulan agertzen diren langileak dira [kontratuaren xedea] xede duen zerbitzu-kontratua gauzatzera [urtea/hilabete/eguna](e)(a)n adskribatuta dauden langileak.

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 102. orrialdea, guztira 103

LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEN TAULA

Zerbitzu-kontratua: [kontratuaren xedea]

Izen-abizenak NAN Hitzarmen kolektiboa Lanbide-kategoria Kontratu-mota

Lanaldia Antzinatasun-data Kontratuaren muga-eguna Urteko soldata gordina

Indarrean dauden itunak

Lekua eta data:.....

Sinadura:

Baliozkotze Kod.: 6TTXWFJPR4YH79CNK9K2JP65F
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 103. orrialdea, guztira 103